Y espero, aunque igual es mucho esperar, que algún día pasaremos de las palabras a los hechos y empujaremos colectivamente con todas nuestras fuerzas en esa dirección. Pero desgraciadamente también tenemos la opción contraria, continuar en la fase actual del desacuerdo y la confrontación y que ya deberíamos de saber para ahora que nos conduce a profundizar más en el problema. Y es cierto que hay muchas cosas que no podemos cambiar del sistema económico imperante y que no dependen de nosotros porque nos vienen impuestas al pertenecer a la Eurozona, como, por poner un solo ejemplo, la fortaleza de un euro que nos impide exportar más, pero hay muchas cosas que si podemos hacer nosotros y no las estamos haciendo para poder tender a tasas de desempleo como la de Alemania y los países nórdicos o por lo menos reducirlas a cifras manejables. Lo que no debemos de hacer es aceptar esta situación con resignación como si fuera una catástrofe natural porque no lo es. Pero lo peor de todo es el futuro que les estamos dejando a nuestros descendientes porque antes se decía que los hijos venían con un pan debajo del brazo y ahora vienen con una deuda heredada impagable y un billete para emigrar a los países que ofrecen oportunidades.

En manos de todos nosotros está elegir el camino a seguir. Podemos elegir la vía de seguir echándonos la culpa de todos los males los unos a los otros y seguir discutiendo si son galgos o podencos mientras el Titanic va camino de las profundidades o podemos optar por dejar de hacer lo del avestruz y empezar a cooperar cediendo todos lo que hay que ceder porque es esto precisamente lo que hay que acordar. Que es lo que tiene que y está dispuesta a ceder cada parte dejándose TODOS tantos pelos en la gatera como sean necesarios. Pero los pelos que hay que dejarse no se pueden precisar aquí porque es tarea de los actores de cada empresa o sector en función de sus circunstancias específicas. Y eso sí, o lo hacemos nosotros aquí y ahora en Euskal-Herría y a poder ser cuanto antes o no lo va a hacer nadie porque si alguien está esperando que van a venir soluciones del gobierno español, de la CEE, o llovidas del cielo, ya puede seguir esperando sentado. O nos ponemos las pilas nosotros aquí o la llevamos clara.

Andoni Leone



Limacos de Oro Urrezko Bareak 2013

Por segunda vez en la historia de nuestro preciado galardón vamos a proceder a la imposición de sendos Limacos de Oro en un mismo acto. La primera vez este doble reconocimiento recayó, por una parte en las Monjas de la Caridad de Arangoiti, hoy día ausentes de nuestra villa y por otra en los Hermanos de La Salle que aún permanecen entre nosotros.

Este año nuestros Limacos de Oro son para dos personas muy queridas y apreciadas entre nosotros, en reconocimiento, a la labor desarrollada por ambos, de una parte, Josetxo Martínez Ibañez misionero seglar y de la otra Francisco Etxeberria Olano médico forense entre otras cosas más.

No nos vamos a extender demasiado pues creemos que parte de sus vidas y de sus actividades quedan muy bien reflejadas en sus respectivos artículos del Limaco de Oro en el Beasain Jaietan.

Solo recordar que por ejemplo Josetxo ha dedicado toda su vida a ayudar a los demás, su labor se ha desarrollado siempre en países pobres, con escasos medios y aliviando en lo posible las miserias y las penas de unos seres que su mayor delito ha sido nacer en unas naciones pobres, explotadas y corrompidas, olvidados por todos, pero sobre todo por una clase dirigente a nivel mundial que mira para otro lado pero que tiene en sus manos los medios para acabar con tantas desgracias y miserias padecidas por los que nada tienen.

Francisco, popularmente conocido entre sus paisanos por Paco, médico forense, profesor de la U.P.V. presidente de Aranzadi etc.

¿Qué tienen en común nuestros dos Limacos de Oro? puesto a imaginar podemos decir que, Josetxo desarrolló su labor con personas luchando por sobrevivir y Paco realiza su labor con personas o restos de personas que perdieron la vida, en muchos casos, esta vida les fue arrebatada de una manera vil, ruin y sin piedad fruto de fanatismos e ideologías totalitarias, solamente por pensar de otra manera.

Sus continuas apariciones en los medios de comunicación, posiblemente más de lo que él quisiera, nos da idea de su gran profesionalidad y de

Gure sari preziatuaren historian bigarren aldiz, aurten bi Urrezko Bare emango ditugu ekitaldi bakar batean. Sari bikoitza emandako lehenengo aldian, alde batetik gaur egun jadanik herrian ez dauden Arangoitiko Karitateko Mojei eman zitzaien, eta, bestetik, oraindik ere gure artean dauden La Salleko Anaiei.

Egin duten lanarengatik gure artean oso maitatuak eta estimatuak diren bi lagunek jasoko dute aurten Urrezko Barea: batetik, Josetxo Martinez Ibañez misiolari sekularrak; eta, bestetik, Frantzisko Etxeberria Olano auzitegiko medikuak.

Ez gara gehiegi luzatuko, bataren zein bestearen bizitza eta jarduerak modu egokian islaturik agertzen baitira, gure ustez, Beasain Jaietan honetako Urrezko Bareei buruzko artikuluetan.

Josetxo, adibidez, bizitza osoan besteei laguntzen aritu dela gogorarazi nahi dugu; herrialde pobreetan aritu da beti lanean, bitarteko gutxirekin eta herrialde horietako bizilagunen premiak eta nahigabeak ahal zen neurrian ase eta arindu nahirik, horien deliturik handiena, herrialde txiro, esplotatu, usteldu eta denek ahaztutakoetan –batez ere, ezertxo ere ez dutenen zorigaitzekin eta miseriekin amaitzeko bitartekoak izan eta beste aldera begiratzen duten mundu mailako gidari-klaseak ahaztutakoetan– jaioak izatea baita.

Herriko lagunek Pako esan ohi dioten Frantzisko, berriz, auzitegiko medikua dugu, EHUko irakasle, Aranzadi elkarteko lehendakari, etab.

Zertan datoz bat gure bi Urrezko Bare hauek? Pentsatzen hasita esan dezagun Josetxo bizirik irauteko borroka egiten zuten pertsonekin aritu zela lanean; Pako, aldiz, bizia galdu zuten pertsonekin edo pertsonen gorpuzkinekin dihardu; hauek, askotan, modu zital, doilor eta gupidagabean galdu zuten bizia, fanatismo eta ideologia totalitarioen ondorioz, edo, besterik gabe, bestelako pentsaerak zituztelako.

Komunikabideetan etengabe agertzeak –Pakok berak nahi baino gehiago segur aski– garbi erakusten digu profesionaltasun handiko gizona dela eta lanbideko gaiak jorratzen diren foroetan Pakoren iritzia kontuan hartzen dela.

su respetada opinión en los foros donde se tratan los temas relacionados con su profesión.

Solicitado por gobiernos, instituciones y personas para que unas veces solo y otras acompañado por el equipo que el mismo dirige, aprovechando sus profundos conocimientos y su gran capacidad investigadora aporte los detalles necesarios para esclarecer casos de muy difícil solución, y en otros, identificar resto de personas para que puedan ser rescatadas del olvido y entregadas a sus familiares para que descansen y puedan ser veneradas por sus seres queridos.

Estos son los méritos que a nuestro entender y deseamos que al resto de Beasaindarras les ha hecho merecedores del Limaco de Oro.

Gobernuek, erakundeek nahiz pertsonek hala eskaturik –batzuetan bakarrik eta beste batzuetan berak zuzendutako taldearekin batera–, bere ezaguera sakonaz eta ikerketarako duen gaitasun handiaz baliatzen da Pako, oso konponbide zaileko kasuak argitzen lagunduko duten xehetasunak emateko, edota, beste batzuetan, pertsonen gorpuzkinak identifikatu, norenak diren jakin eta senitartekoei emateko, behar bezala ehortzirik, maite dituztenen ohoreak jasotzeko moduan egon daitezen.

Hauek dira gure ustez –eta beasaindar guztiek ere gure uste berekoak izatea nahi genuke– Urrezko Barea jasotzeko egin dituzten merituak.

Josetxo Martínez Irusta

Algunos aspectos de su vida
Bere bizitzako zertzelada batzuk

Era un chaval majo, que a los siete años perdió a su madre y fue llevado a crecer en el caserío Urdaneta-azpi, de Legorreta, donde fue a la escuela y vivió hasta que fue a la mili.

Cuando empezó a trabajar en Beasain, vivía aquí entre semana, pero el sábado se iba a Legorreta. Poco a poco empezó a venir los domingos después de comer, para poder bailar y andar con los amigos de su cuadrilla Umoreona.

Esta cuadrilla se formó en la calle Santa María, su calle. No en vano hay 15 que vivían entre las calles Santa María y Martina Maiz. De los 25 hoy viven 10 y en Beasain solo 3.

La mili le tocó hacerla en Africa pero, de todas formas, la hubiera hecho allí, puesto que de no to-

Mutiko zintzo honek zazpi urte zituela galdu zuen ama eta Legorretako Urdaneta-azpi baserrira eraman zuten han kozkor zedin. Legorretan bertan joan zen eskolara eta hantxe bizi izan zen soldaduskara joan arte.

Beasainen lanean hasi zenean, aste barruan hemen egoten zen, baina larunbatetan Legorretara joan ohi zen. Pixkanaka, ordea, igandeetan hona etortzen hasi zen bazkalondoan, dantza egin eta Umore Ona lagun-taldeko adiskideekin ibili ahal izateko.

Lagun-talde hori Josetxoren kalean eratu zen, Andre Mari kalean, izan ere, taldeko 15 lagun Andre Mari eta Martina Maiz kaleetan bizi baitziren. Gaur egun, garai hartako 25 lagunetatik 11 bizi dira eta Beasainen 3 bakarrik.

carle se hubiera presentado voluntario, como él siempre decía.

No es extraño que luego fuera a Ruanda y a Angola como misionero, pues ya le gustaban los africanos desde la mili ¡Qué fijación!

Al poco de venir de la mili estudió Taxidermia y aprendió a disecar animales con destreza. En época de caza tenía en su casa a todos los cazadores del Goierri para que inmortalizara sus trofeos cinegéticos. Igual disecaba un faisán que una ardilla o una garza.

¿Quién dice que esta garza no está viva? Pues yo, porque la llevé al monte para sacarle las fotos.

En la plaza de Beasain los domingos por la tarde las Bandas Municipales de Música y de Txistularis interpretaban sus melodías para que los jóvenes bailáramos y los mayores se entretuvieran contando cuántas veces seguidas bailaba una joven con un determinado chico. ¿Habrá pareja? ¡Qué intríngulis!

Pues bien, muy a menudo la Banda de Música interpretaba un vals francés muy melódico que se titulaba "La estrella de las nieves". Y a Josetxo le gustaba tanto, que no dudó en ponerle letra; pero tenía que ser una letra que fuera dulce, que despertara bellos sentimientos en el corazón. Y nada mejor para ello que dedicársela a un niño y concretamente al Niño Jesús. Y con aquella música sacó el villancico vasco que tanto se ha cantado en Beasain y Legorreta el día de Nochebuena, y aún lo cantan en Beasain los grupos escolares cuando salen por la mañana. Es el villancico "Izar eder bat".

Y cuando ya disecó bastante, se le ocurrió que quería ir de misionero seglar a Los Ríos, en el Ecuador, a la misión que tenían las Diócesis vascas. En esto tuvo mucho que ver su amistad con D. Jesús Dorronsoro, que vino a Beasain tras estar en aquella misión.

Y la despedida que le hicieron los amigos y amigas fue sonada. Se habilitó el pórtico de la basílica de San Martín de Loinaz para la comida, a la que asistieron, además del párroco y coadjutores, numerosos amigos y amigas de Beasain y de Legorreta.

Después de estar 6 años en Los Ríos regresó a Beasain, con intención de quedarse. Pero ya estaba escrito que él era para las misiones. Y tras una entrevista con Don Víctor, se preparó para ir a la misión africana de Ruanda.

Primero tuvo que ir a París a aprender francés, donde estuvo seis meses. Y cuando ya estuvo preparado dio el salto. Estuvo en Ruanda otro porrón de años, los suficientes para darse cuenta de que

Soldaduska Afrikan egitea egokitu zitzaion, baina, edonola ere, hantxe egingo zukeen, hara joatea egokitu izan ez balitzaio, bere borondatez joango baitzen, berak beti esan ohi zuen bezala.

Ez da harritzekoa, beraz, gero misiolari modura Ruandara eta Angolara joan izana, soldaduskara joan zenetik gustukoak baitzituen afrikarrak. Hori irmotasuna!

Soldaduskatik etorri eta berehala, taxidermia ikasi eta trebezia handiz animaliak disekatzen hasi zen. Ehiza garaian bere etxean izaten zituen Goierriko ehiztari guztiak, haiek lortutako ehizakiak betikotu zitzan. Faisaia, kattagorria nahiz lertxuna, Josetxok denak disekatzen zituen.

Nork esan dezake honako lertxun hau ez dagoela bizirik? Nik neuk, neronek eraman bainuen mendira argazkiak ateratzeko.

Beasaingo plazan, herriko musika-bandak eta txistulariek euren doinuak jotzen zituzten igande arratsaldeetan, neska-mutilok dantza egiteko eta nagusiak neska gazte batek halako mutilarekin zenbat aldiz jarraian dantzatzen ote zuen zenbatzen aritzeko. Osatuko ote zuten bikotea? Hura jakin-mina!

Musika-bandak, bada, sarri jotzen zuen oso bals melodiko bat, Frantziako «Elurretako izarra» izenburukoa. Josetxok hain gustukoa zuen bals hura, hitzak ipintzea erabaki zuela; hitzak, ordea, gozoak eta eztiak izan behar zuten, bihotzean sentimendu ederrak pizteko modukoak. Horretarako onen-onena, haur bati –Jesus haurrari, hain

una de las carencias importantes de Africa era la atención sanitaria.

Regresó aquí y se fue a la leprosería de Fontilles, a aprender y sacar el título de enfermería y pequeña cirugía. Cuando lo consiguió pidió ir nuevamente a las misiones de Africa y entonces le destinaron a Angola.

Una vez allí, en unión de otros dos misioneros seglares de Vitoria-Gasteiz, crearon en el mato (en la selva) una escuela para la Enseñanza Profesional Agraria a los jóvenes de los poblados que circundaban la misión. Lo montaron tras arreglar y adecentar los edificios de una antigua misión de unos frailes. Su obispo les pidió el material que necesitarían y les consiguió un tractor para labrar la tierra, parejas de gallinas, conejos, cerdos y diferentes plantas comestibles para la huerta.

Así crearon la granja y empezaron a enseñar a los jóvenes a cultivar el campo y criar animales domésticos, a quienes, al terminar los estudios, les mandaban a casa con plantas de la huerta para que crearan la suya propia y con una pareja de conejos y gallinas para que crearan su propia cabaña.

Josetxo era también el "médico" de la escuela, atendiendo a los alumnos y compañeros. Todo un plan, que funcionó hasta que los angoleños hicieron la revolución contra los colonos portugueses y tuvieron que salir del país hasta los mi-

zuzen– eskainitakoak izatea. Eta musika harekin, Gabon egunean Beasainen eta Legorretan hainbeste aldiz abestu den eta oraindik ere Beasainen ikasle-taldeek goizean kantari irteten direnean abestu ohi duten Gabon kanta sortu zuen: «Izar eder bat» izenburuko Gabon kanta.

Animaliak disekatzen nahi beste lan egin zuenean, Euskal Herriko elizbarrutiek Ekuadorren zuten misiora, Los Rios-era, misiolari sekular modura joatea bururatu zitzaion. Erabaki horretan zerikusi handia izan zuen On Jesus Dorronsororen laguna izateak, On Jesus misio hartan egon ondoren etorri baitzen Beasaina.

Lagunek egin zioten agurra gogoangarria izan zen orduan. Loinazko San Martin elizako ataria bazkarirako egokitu eta han izan ziren, erretoreaz eta apaiz lagunkideez gain, Beasaingo eta Legorretako adiskide –gizon eta emakume– ugari.

Los Riosen 6 urte egin ondoren, Beasaina itzuli zen hemen gelditzekotan, baina ordurako idatzia zegoen Josetxo misioetarako gizona zela. On Bittorrekin hitz egin ostean, Afrikara Ruandako misiora joateko prestatzen hasi zen.

Lehenbizi Parisa joan behar izan zuen frantsesa ikastera, eta, han sei hilabetez egon ondoren, behar bezala trebatu zenean abiatu zen Afrikarantz. Ruandan beste urte mordo bat egin zuen, Afrikako gabezia handienetako bat osasun-laguntzari loturik zegoela konturatzeko adina.

Hona itzuli eta Fontilles-eko legardunen ospitalera joan zen, erizaintza eta kirurgia apur bat ikasi eta titulua ateratzera. Nahi zuena lortu zuenean, berriro Afrikako misioetara joatea eskatu zuen eta oraingoan Angolara bidali zuten.

Hara joan zenean, Gasteizko beste bi misiolari sekularrekin batera, eskola bat sortu zuen oihanean, misio inguruko herrixketako gazteei nekazaritza arloko Lanbide Heziketa emateko. Fraide batzuen garai bateko misio bateko eraikinak egokitu eta txukundu ondoren prestatu zuten eskola.

sioneros, si no querían morir por el mero hecho de ser blancos.

Cuando tuvo que salir de Angola vino a Madrid y empezó a trabajar en un sanatorio de deficientes mentales profundos. Le pusieron al frente del almacén y allí dio pruebas de su entereza moral al soportar sin sucumbir las constantes presiones de los proveedores para darle comisiones para que consumiera sus productos.

Pero en Angola se acordaban de la labor que habían realizado los misioneros vascos y el nuevo gobierno revolucionario hizo las gestiones para que regresaran. Y regresaron, pero esta vez al barrio de La Precol, de la capital Luanda.

En unión de tres sacerdotes, aparte de ayudar a organizar la vida social de los residentes del barrio, Josetxo organizaba el cine y los teatros vespertinos de los domingos y atendía a los que estaban enfermos.

Pronto creó su propio dispensario en un local de la misión. Pidió medicinas a los centros de voluntariado que recogen aquí medicinas sobrantes y se las enviaban clasificadas por grupos homogéneos para diferentes enfermedades. Se hizo tan famoso su dispensario que tuvo que atender hasta 200 pacientes al día. En el local contiguo creó la farmacia, con un negrito bien enseñado que repartía diariamente las dosis que Josetxo había recetado a los pacientes, puesto que no se les podía dar toda la caja de una vez, porque la consumían sin control e incluso porque la vendían. Hay que tener en cuenta que había instalaciones portuarias que antes funcionaron bien, que luego no funcionaban porque un obrero se había llevado un tornillo que necesitaba en su casa. O los ascensores de las casas altas que antes subían y bajaban perfectamente, luego ya no andaban por la misma razón anterior, cuando no se llevaban los tornillos para venderlos. Y con esto no quiero hablar a favor del colonialismo sino hacer comprender la realidad social en la que le tocó bregar a Josetxo. Eran todos muy buenos, pero cada uno hacía la suya.

Otra de las facetas sanitarias importantes que desarrolló Josetxo fue el hacer de forma sanitariamente segura y sin riesgos la fimosis a los jóvenes cuando llegaban a la pubertad. Por muy católicos que fueran esto era un rito del que no se podían escapar, puesto que los no circuncidados eran rechazados por las chicas y las mujeres. El peligro estaba en la forma en que lo practicaban los hechiceros, sin ninguna garantía sanitaria. Y, a veces, había niños que morían por infección. Josetxo lo hacía con garantías al igual que las curas posteriores. Y como para un hombre de Angola

Gotzainak eskolan behar izango zuten materiala eskatu eta lurra lantzeko traktore bat, oilo, untxi eta zerri pareak eta baratzerako zenbait landare jangarri lortu zizkien.

Horrela sortu zuten etxaldea eta gazteei lurra nola landu behar zuten eta etxeko animaliak nola hazi behar zituzten irakasten hasi ziren; ikasketak amaitzean, gazteak baratzerako landareekin bidaltzen zituzten etxera euren baratzak sor zitzaten, eta untxi eta oilo pare banarekin ere bai, euren etxeetan hazi eta ugal zitzaten.

Josetxo eskola hartako «medikua» ere bazen, eta ikasleak nahiz lagunak zaintzen zituen. Benebenetako plana zen hura eta angolarrek kolono portugaldarren aurkako iraultza egin zuten arte funtzionatu zuen; orduan misiolariek ere irten egin behar izan zuten herrialde hartatik, zuriak izateagatik soilik hil nahi ez bazuten behintzat.

Angolatik irten behar izan zuenean, Madrila etorri eta adimen urri sakonekoen erietxe batean hasi zen lanean. Han biltegiko arduradun ipini zuten eta garbi frogatu zen Josetxoren zintzotasuna, amore eman gabe jasan zituelako hornitzaileen etengabeko presioak, haien produktuak kontsumitzearen truke komisioak emango zizkiotela agintzen baitzioten.

Angolan oroitzen ziren, ordea, misiolari euskaldunek egin zuten lanaz eta gobernu iraultzaile berriak zuzemenak egin zituen hara itzul zitezen. Eta itzuli ziren, bai, baina oraingoan Luanda hiriburuko Precol auzunera.

Hiru apaizekin batera, Josetxok, auzotarren gizarte-bizitza antolatzen laguntzeaz gain, igande arratsaldeetako zinema- eta antzerki-saioak antolatu eta gaixoak zaintzen zituen.

Laster eratu zuen bere kontsultategia misioko gela batean eta botikak eskatu zizkien hemen sobera daudenak jasotzen dituzten boluntario-elkarteei. Hain sonatua bihurtu zen Josetxoren kontsultategia, zenbait egunetan 200 gaixo ere artatu behar izan zituela. Ondoko gelan, berriz, botika ipini zuen, ondo trebatutako gizon beltz baten ardurapean; gizon horrek Josetxok agindutako dosiak banatzen zizkien gaixoei egunero, kaxa osoa ematea ezinezkoa baitzen, kontrolik gabe kontsumitzen zutelako edo saldu egiten zutelako bestela. Kontuan izan behar da bazirela lehen ondo ibiltzen ziren portuetako instalazioak, baina gero langile batek etxean behar zuen torloju bat eraman zuelako funtzionatzen ez zutenak. Etxe garaietako igogailuak ere, lehen behar bezala igo eta jaisten zirenak, gero ez ziren ondo ibiltzen lehengo arrazoi horrengatik edo torlojuak saltzera eraman zituztelako bestela. Eta horrekin ez dut kolonialismoaren

quien le hubiere circuncidado era como su segundo padre, Josetxo llegó a tener gran influencia ante hombres que ocupaban cargos importantes en estamentos oficiales de la administración.

Fue tal la fama que se extendió alrededor del dispensario de Josetxo, que una ONG catalana construyó en su lugar un hospital, dotado con varios médicos y enfermeros, que funciona en la actualidad.

También en cierta ocasión visitó Angola el Papa Juan Pablo II, quien se hospedaba en un convento de monjas. Fue Josetxo el encargado de prepararle las refrescantes ensaladas y zumos de frutas tropicales que reparaban al Santo Padre tras sus maratonianas y calurosas jornadas, cosa que le agradeció personalmente.

Otra faceta que Josetxo cultivó desde su juventud fue la prestidigitación. La aprendió de un libro y se aficionó tanto que fue mejorando constantemente.

Y en las misiones le vino al pelo, pues en épocas y lugares de penuria es muy sano reír e ilusionarse. Bien lo sabían los obispos de las provincias de Angola, que le llamaban para que fuera a pasar unos días en sus pueblos haciendo juegos de prestidigitación.

Era tal el éxito que, cuando cada dos años venía a Beasain de vacaciones, esos mismos obispos le daban dinero para que pudiera comprar nuevos juegos en Barcelona.

Y tras su jubilación, por imperativos de edad y salud, Josetxo vive en la Residencia Sacerdotal que la Diócesis de San Sebastián tiene para sus sacerdotes mayores, junto a la catedral del Buen Pastor.

Desde allí hace visitas periódicas a su txoko para estar con sus familiares. E incluso ha asistido algunos años a la fiesta que su cuadrilla Umoreona celebra todos los lunes de fiestas de Beasain, asistiendo primero a la misa y romería de San Marcalde egin nahi; aitzitik, Josetxori egokitu zitzaion egoera ulertaraztea besterik ez dut nahi. Oso zintzoak izango ziren denak, baina bakoitzak berea egiten zuen.

Osasun arloko beste alde bat ere garatu zuen Josetxok: fimosia modu seguruan eta arriskurik gabe egiten zien mutil gazteei pubertarora heltzean. Oso katolikoak izan arren, fimosiarena ezinbestekoa zuten, emakumeek eta neska gazteek baztertu egiten baitzituzten erdaingabeak. Aztiek egin ohi zuten modura arriskutsua izaten zen, inolako osasun bermerik ez zegoelako. Eta zenbait kasutan, mutikoak hil ere egiten ziren infekzioen ondorioz. Josetxok berme osoarekin egiten zuen fimosiarena, bai eta ondorengo sendaketa-lanak ere. Eta Angolako gizon batentzat erdaindu duen gizona bigarren aita modukoa denez, Josetxok eragin handia izan zuen administrazioko estamentu ofizialetan kargu garrantzitsuak izan zituzten gizonen artean.

Hainbesteko ospea hartu zuen Josetxoren kontsultategiak, Kataluniako GKE batek gaur egun oraindik ere lanean diharduen eritegi bat eraiki zuela.

Behin Joan Paulo II.a aita santuak ere bisitatu zuen Angola eta moja-komentu batean hartu zuen ostatu. Bidaia hartan Josetxo arduratu zen egun bero eta amaigabe haien ondoren aita santua indarberritzen zuten entsalada eta fruta tropikalen zuku freskagarriak prestatzeaz, eta aita santuak berak eskertu zion egindako lana.

Josetxo gazte-gaztetatik hasi zen prestidigitazioa lantzen ere. Liburu batetik ikasi ondoren, horrenbesteraino zaletu zen, etengabe aritu izan dela esku-jokoak hobetzen.

Eta misioetan primeran etorri zitzaion hori, gabezia nagusi den leku eta garaietan, biziki osasungarria baita barre egin eta jendea pozez betetzea. Hori oso ondo zekiten Angolako probintzietako gotzainek, Josetxori deitzen baitzioten haien herrie-

tín de Loinaz y a la posterior comida con sobremesa hasta las ocho de la tarde.

No le han faltado reconocimientos a este beasaindarra universal, y uno de los que más le gustaba era el que supone la siguiente fotografía.

Y por último, este año ha sido la infatigable Sociedad Cultural BETI BIZI la que ha querido reconocerle y premiarle con la concesión del LIMACO DE ORO, por sus méritos de abnegación en favor de los más pobres.

Chintófano: Te lo merecías. Zorionak.

tara egun batzuk igarotzera joan eta prestidigitazio-jokoak egin zitzala eskatzeko.

Josetxoren arrakasta hainbesterainokoa zen, gotzain horiek beraiek dirua ematen ziotela, bi urtetik behin oporretan Beasaina etortzen zenean Bartzelonan jolas berriak erosi ahal izateko.

Adinarengatik eta osasunarengatik erretiroa hartu ondoren, Josetxo Donostiako elizbarrutiak adineko apaizentzat duen egoitzan bizi da orain, Artzain Onaren katedralaren ondoan.

Handik aldian behin etorri ohi da bere txokora familiakoekin egotera. Tarteka-marteka, Umore Ona bere lagun-taldeak Beasaingo jaietako astelehenean egin ohi duen festara ere etorri izan da; hau da, lehenbizi Loinazko San Martingo mezara eta erromeriara, eta gero bazkarira eta arratsaldeko zortziak arte luzatu ohi den bazkalondokora.

Beasaindar unibertsal honi ez zaio esker onik falta izan, eta gehien gustatzen zitzaionetako bat honako argazki honek adierazten duena da.

Aurten BETI BIZI Kultur Elkarte nekaezinak adierazi nahi izan dio bere esker ona, behartsuenen alde jasandako nekeengatik URREZKO BAREA saria emanez.

Txintofano: beste inork baino gehiago merezi zenuen sari hori. Zorionak.

Francisco Etxeberria Gabilondo "Paco"

Algunos aspectos de su vida
Bere bizitzako zertzelada batzuk

Artikulu honetan, Lazkaibar auzoan –edo zenbaiten esanetan, berak ondo gogoan duenez, Lazkaibarzulon– jaiotako Frantzisko Etxeberria Gabilondo "Pako" beasaindarraren nortasuna eta merezimenduak hobeto ezagutzen ahaleginduko gara.

Pako Etxeberria –hala esan ohi diogu bere lagun eta adiskideok– 1957an jaio zen langile familia batean Beasaingo Lazkaibar auzoan, trenbidearen ondoan zegoen Lazkaibarraundi baserrian.

Pakoren gurasoak, Fakundo eta Igone, Beasainen eta Azkoitian jaio ziren hurrenez hurren, eta lehen aipatutako baserriko bigarren solairuan bizi izaten jarri ziren, aitaren lehengusuena zelako.

Eta hona hemen gure herrikidea auzoko gainerako haurrekin jolasean, bere arreba Estitxuren begirada arretatsuaren pean, Pakok dioenez arreba

En este artículo vamos a ver e intentar conocer mejor la personalidad y méritos de D. Francisco Etxeberria Gabilondo "Paco", beasaindarra nacido en el barrio de Lazkaibar, o Lazkaibarzulo como él recuerda que algunos llamaban.

Paco Etxeberría, que es como le conocemos en los círculos cercanos a él, nació en Beasain en 1957, en el seno de una familia de trabajadores residentes en el caserío Lazkaibarraundi, ubicado junto al ferrocarril, en el barrio de Lazkaibar.

Sus padres Facundo e Igone eran nacidos en Beasain y Azkoitia respectivamente, fijando su residencia en el segundo piso del citado caserío, que era de los primos del padre.

Y aquí le tenemos a nuestro paisano, jugando con los demás niños del barrio, bajo la atenta mirada de su hermana Estitxu que, según Paco, pasó de jugar con las muñecas de cartón a ocuparse de su hermanito. Y vaya si se ocupó; y no solo en los juegos infantiles.Le he oído decir que uno de los mejores recuerdos de su infancia era ver pasar el tren durante todo el día, detrás mismo de su casa, tirado por la locomotora de carbón, con el maquinista y fogonero manchados por el humo, que parecían de otro país.

Su padre trabajaba en la fundición de C.A.F., y cuando Paco contaba con tan solo nueve años, falleció.

Otros recuerdos de su niñez, son las odiseas que sus amigos, hijos de emigrantes, contaban al regreso de los viajes por la península, cuando en agosto marchaban al pueblo con sus padres.

También le impresionaban los chavales que vivían en caseríos lejanos de Ataun, Olaberria, etc. Algunos sábados iba a sus casas y por ello siempre les ha dado mucho mérito. No le sorprende que trajeran un almuerzo como en las expediciones polares.

Recuerda muy bien cómo todos los años, con el buen tiempo llegaban a Beasain por la carretera nacional carros con familias gitanas. Les daba miedo acercarse y envidia ver a los chavales jugando con los perros bajo el carro. Dice que nunca pensaban lo que sería vivir así en invierno.

También recuerda cómo, cuando los niños estaban jugando en Lazkaibar y tocaba el cuerno de la fábrica, salían los obreros llenando toda la carretera de bicicletas. El parvulario lo hizo en las monjas Carmelitas de La Portería. Recuerda el día en que aplastaron un dedo a José Antonio Alonso, al empujar una puerta.

Pero entre el final del parvulario y el inicio de la enseñanza primaria, ocurrió algo que fue funesto para los habitantes del barrio de Lazkaibar. Fue la kartoizko panpinekin jolasteari utzi eta anaia zaintzen hasi baitzen. Ondo zaindu ere, eta ez haur-jolasetan bakarrik.

Pakori entzun izan diot bere haurtzaroko oroitzapenik onenetako bat duela ikatz-makinez tiratutako trena, tren-gidaria eta sugilea kez eta kedarrez belztuta zihoazela, egunean zehar baserri atzetik igarotzen ikustea; beste lurralde batekoak omen ziruditen.

Pakoren aitak CAFeko galdategian lan egin zuen eta semeak bederatzi urte besterik ez zituenean hil zen.

Pakok ondo gogoan ditu haurtzaroko bere lagunen udako pasadizoak ere, etorkinen seme haiek abuztuan penintsulan zehar gurasoen herrietara joan eta handik itzultzean kontatzen zituztenak.

Ataunen, Olaberrian, etab., urrutiko baserrietan bizi ziren mutikoek ere txunditurik uzten zuten Pako. Batzuetan, larunbatetan, haien etxeetara joaten zen eta hargatik meritu handia zutela esan izan du beti. Beretzat ez da harritzekoa, bada, mutil haiek poloetako espedizioek adina janari ekartzea.

Ondo gogoan du urtero-urtero eguraldi onarekin ijito familien karroak etortzen zirela Beasaina errepide nazionaletik. Haiengana hurbiltzeak beldurra eragiten bazien ere, mutiko ijitoak gurdi azpian zakurrekin jolasten ikusteak inbidia ematen zien. Ez zuten inoiz pentsatu, ordea, nolako bizimodua izan zitekeen hura neguan.

Haurrak Lazkaibarren jolasten ari zirenean eta fabrikako adarrak jotzen zuenean, langileak lantegitik irten eta errepidea bizikletaz betetzen zela ere gogoratzen du.

Eskolaurrea Ezkiaga auzoko moja karmeldarren ikastetxean egin zuen. Gogoan du ate bat bultzatzerakoan Jose Antonio Alonsori hatz bat zanpatu zioten eguna.

Baina eskolaurrearen amaiera eta lehen hezkuntzaren hasiera artean, Lazkaibarko bizilagu-

prohibición para ellos de poder atravesar la empresa C.A.F., como lo habían hecho desde tiempos inmemoriales, para acceder al centro de su pueblo.

Quedaban ya muy alejados de las escuelas, el comercio, la iglesia, el cine y los lugares de ocio, puesto que se veían obligados a venir a través de los puentes de Lazkaibar o de Senpere, con lo que se les duplicaba el trayecto de su recorrido.

nentzat zorigaiztokoa izan zen zerbait gertatu zen. Debekatu egin zieten herrigunera joateko, aspaldidanik egiten zuten bezala, CAF enpresa zeharkatu ahal izatea.

Urrun geldítu zitzaizkien eskolak, dendak, eliza, zinema eta aisialdirako lekuak, herrira etortzeko Lazkaibarko edo Senpereko zubiak erabili behar zituztelako, eta, horrela, ibili beharreko bidea bikoiztu egin zitzaielako.

El centenario camino que unía Lazkaibar con el centro de Beasain, fue ocupado por la empresa en sus distintas ampliaciones. Y fue por eso que los habitantes del barrio conservaron el derecho de paso.

Pero el uso del mismo que hicieron los trabajadores de la empresa, durante una huelga, hizo que ésta decidiera cerrarlo.

Ello provocó que muchos habitantes del barrio, empezaran a tomar contacto con la vecina villa de Ordizia, cuyo centro les quedaba más cerca. La distancia al centro de Beasain por el puente de Lazkaibar era de un kilómetro y medio.

Lazkaibar eta Beasaingo herrigunea lotzen zituen garai bateko bide zaharra enpresak hartu zuen lantegian egindako handitze-lanetan. Hori dela-eta, auzoko bizilagunek handik igarotzeko eskubidea mantendu zuten.

Greba batean, ordea, enpresako langileek erabili egin zuten bidea eta enpresak hura ixtea erabaki zuen.

Horren eraginez auzoko bizilagun asko Ordiziako herriarekin harremanak izaten hasi zen, hango herrigunea gertuago zutelako. Lazkaibarko zubitik kilometro eta erdiko bidea zegoen Beasaingo herrigunera.

Así, nuestro mozalbete Paco, tuvo que empezar la enseñanza primaria en el colegio de La Salle, de Ordizia. En la fotografía de arriba se le ve junto al actual párroco de Beasain, D. Javier Txurruka, y atrás se ve a Javier Garín, también de Lazkaibar.

Fue captado por el sacerdote D. Jesús Dorronsoro, juntamente con Javier Garín, como monaguillo de la capilla de Santo Cristo de La Portería. Dice que nunca bebían el vino dulce de las vinajeras, hasta que aprendieron el truco con los frailes benedictinos de Lazkao, que solían venir a celebrar misa.

El cuarto curso de bachillerato, con 13 años, Paco lo cursó en el Colegio San Martín de Loinaz, de los Hermanos de La Salle, de Beasain, en 1970.

Y aquí se inició una de sus grandes aficiones como es la espeleología, gracias a una excursión que hicieron a las cuevas de Troskaeta, de Ataun, aunque sin entrar.

Ya llevaba Paco su linterna con toda la ilusión, pero los frailes decidieron no entrar. No fue óbice para nuestro futuro espeleólogo, puesto que convenció a otros compañeros y, el siguiente sábado, marcharon por su cuenta e inspeccionaron la cueva cuanto pudieron.

No sospecharían aquellos mozalbetes cuán cerca tenían el esqueleto del oso de las cavernas *(Ursus speleus)* que, en aquella cueva, descubrieron D. Manuel Laborde y D. José Miguel de Barandiarán.

A partir de entonces, en sus excursiones al monte, su objetivo serían las cuevas y las simas, sobre todo de Aralar, *Larretxiki, Amutxate, Mendukilo*... y otras muchas que inspeccionó con sus amigos, hasta convertirse en un experto espeleólogo, haciéndose socio de la Sociedad de Ciencias Aranzadi en 1973, de la que hoy es su Presidente.

En la pequeña Biblioteca Municipal de Beasain, que estuvo junto a la estación, pudo leer los trabajos de José Miguel de Barandiaran. Pronto localizaron la cueva de Murumendi a la que llegaron subiendo desde la regata de Mariaratz.

En verano, con 14 años, fueron de campamento a Ezkarai con el colegio La Salle. Se subió a todos los árboles del contorno, localizando numerosos nidos de pájaros. Para entonces ya sabía Paco que no le iba a gustar nunca el futbol.

Cercana ya la edad para iniciar sus estudios en la universidad, la familia se trasladó a vivir en Donostia.

Simultaneando sus estudios de medicina en la Universidad del País Vasco, con su afición a la espeleología entró en el mundo de la arqueología; y

Horrela, bada, Pako gure mutil koskorrak Ordiziako La Salle ikastetxean hasi behar izan zituen lehen hezkuntzako ikasketak. Goiko argazkian, Javier Txurruka egungo Beasaingo erretorearen ondoan ageri da, eta atzean, berriz, Javier Garin dago, Lazkaibarkoa hau ere.

Jesus Dorronsoro apaizak Ezkiaga auzoko Santo Kristo kaperan akolito izateko hartu zuen Javier Garinekin batera. Pakok dioenez ez omen zuten inoiz ur-ardo ontzietako ardo gozorik edan, harik eta meza ematera etorri ohi ziren Lazkaoko fraide beneditarrekin trikimailua ikasi zuten arte.

Batxilergoko laugarren ikasturtea 1970ean egin zuen Pakok Beasainen, La Salleko Anaien Loinazko San Martin ikastetxean, 13 urte zituela.

Han sortu zitzaion bere zaletasunik handienetako bat, espeleologia, barrura ez sartu arren Ataungo Troskaeta haitzuloetara egin zuten ibilaldiari esker.

Pakok ilusio handiz eraman zuen bere linterna, baina fraideek haitzulora ez sartzea erabaki zuten. Hori ez zen eragozpenik izan etorkizuneko gure espeleologoarentzat, izan ere, beste ikaskide batzuk konbentzitu eta hurrengo larunbatean euren kabuz joan baitziren, haitzuloa ahal izan zuten neurrian miatuz.

Mutiko haiek ez zuten susmatu ere egingo zeinen gertu izan zuten Manuel Labordek eta On Jose Migel Barandiaranek haitzulo hartan bertan aurkitu zuten leize-hartzaren (Ursus spelaeus) hezurdura.

Harrezkeroztik, mendira egin zituen ibilaldietan haitzuloak eta leizeak aztertu nahi izan zituen, batez ere Aralarkoak: Larretxiki, Amutxate, Mendukilo,... Horiek eta beste asko arakatu zituen lagunekin batera, eskarmentu handiko espeleologo bilakatu arte; 1973an Aranzadi Zientzia Elkarteko kide egin zen eta gaur egun elkarte horretako lehendakari dugu.

Beasainen geltoki ondoan egon zen Udal Liburutegi txikian, Jose Migel Barandiaranen lanak irakurri zituen. Laster aurkituko zuten Murumendiko haitzuloa, hara heltzeko Mariaratz errekan gora igoz.

Udan, 14 urte zituela, Ezkaraiko udalekura joan zen La Salle ikastetxekoekin. Han inguruko zuhaitz guztietara igo eta txori-habia ugari aurkitu zituen. Ordurako bazekien Pakok futbola ez zuela gustuko izango.

Unibertsitatean ikasketak hasteko adina hurbil zuela, Pakoren familia Donostiara joan zen bizitzera.

Euskal Herriko Unibertsitateko medikuntza-ikasketekin batera bere espeleologia zaletasunarekin ere jarraituz, arkeologia munduan sartu eta Aran-



tomó parte en los campos de trabajo que se organizaban en la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

En la fotografía de arriba le vemos en las excavaciones de la cueva de Amalda, de Zestoa, en un momento de descanso junto a todo el equipo de la excavación. Es el tercero por la derecha, con su sombrero.

También hay otro beasaindarra en esta fotografía. El primero de pie por la izquierda, es el arqueólogo y profesor de la Universidad del País Vasco D. José Antonio Mújica Alustiza.

Y la joven que está en quinto lugar, de pie, por la izquierda, es Dª. Lourdes Herrasti, arqueóloga, esposa y compañera de expediciones de nuestro biografiado.

También continuó visitando las cuevas de Aralar en compañía de sus amigos, e incluso a solas como le vemos en la siguiente fotografía, dentro de una chabola de pastor.

En sus estudios universitarios, se especializó en medicina legal y forense, habiendo ejercido durante años el cargo de médico forense del juzgado de Donostia.

Sus conocimientos en esta especialidad han llegado a un grado tal, que el Doctor Etxeberria es

zadi Zientzia Elkarteak antolatzen zituen auzolandegietan lan egin zuen.

Goiko argazkian, Zestoako Amalda haitzuloan egindako indusketetan ageri da, indusketa-lanak egin zituen lan-talde osoarekin batera, atsedenaldietako batean. Eskuinaldetik hasita hirugarrena da Pako, bere kapela eta guzti.

Argazki horretan beste beasaindar bat ere ageri da. Ezkerretik hasita zutik dagoen lehena Jose Antonio Mujika Alustiza da, Euskal Herriko Unibertsitateko arkeologo eta irakaslea.

Ezkerretik hasita zutik dagoen bosgarren neska gaztea, berriz, Lourdes Herrasti arkeologoa da, gure biografia honetako protagonistaren emazte eta espedizioetako kidea.

Aralarko haitzuloak bisitatzen ere jarraitu zuen bere lagunekin batera, bai eta bakarka ere, artzainetxola baten barruan egindako hurrengo argazki honetan ikusten dugun bezala.

Unibertsitateko ikasketetan, lege- eta auzitegi medikuntzan espezializatu zen eta urte askotan auzitegiko mediku lanetan aritu da Donostiako epaitegian.

Espezialitate horretan hainbesterainoko ezaupideak bereganatu ditu, epaitegietako nahiz epaitegiz

requerido por numerosos organismos judiciales y extrajudiciales, no sólo de la Península Ibérica sino de países bien alejados, varios de Sudamérica.

Los informes derivados de sus investigaciones, han clarificado numerosas dudas sobre las razones de fallecimientos de reconocidas personalidades, e incluso modificado resultados dados anteriormente por otros profesionales.

Sólo tenemos que recordar el eco mediático que recientemente ha tenido su informe sobre los restos de los hijos de José Bretón o, en su día, sobre la muerte del Presidente de Chile, Salvador Allende.

Otro trabajo importante a lo largo de su carrera personal, es el referente al Instituto Vasco de Criminología, de la mano de D. Antonio Beristain. Ha publicado numerosos resultados de estudios verificados en este Instituto, del que es Vicepresidente.

Posee un vasto número de publicaciones que, generalmente, no hace constar en su curriculum, ya que no se encuentran exactamente en el ámbito de la medicina. Algunas de estas publicaciones están hechas en unión de otros compañeros de salidas a cuevas, simas y zonas kársticas de los montes que visitan.

Participó en la elaboración de la Carta Arqueológica de Gipuzkoa, en la especialidad de Antropología-Arkeología. Posee varias aportaciones en el Boletín de la Asociación Española de Paleopatología.

Es Profesor Titular de Medicina Legal y Forense de la Facultad de Medicina de la Universidad del País Vasco, en la que imparte docencia ininterrumpida desde el curso académico 1983/84. Treinta años.

Entre sus participaciones como perito judicial en numerosos procesos judiciales, dentro y fuera de España, se incluyen casos de torturas por parte de las fuerzas del orden españolas o en el Caso

kanpoko erakunde ugarik izan duela Etxebarria doktorearen premia, eta ez Iberiar penintsulan bakarrik, baita urrunagoko beste herrialde batzuetan ere, Hego Amerikako zenbait herrialdetan, esate baterako.

Pakok egindako ikerketetako txostenek zalantza ugari argitu dituzte pertsona ospetsuen heriotzei buruz, eta beste profesional batzuen lehenagoko emaitzak ere aldatu izan dituzte.

Gogoan izan, adibidez, duela gutxi Jose Bretonen seme-alaben gorpuzkinei buruzko txostenak izan duen oihartzun mediatikoa, edota bere garaian Salvador Allende Txileko presidentearen heriotzari buruzkoak izan zuena.

Bere ibilbidean zehar izan duen garrantzi handiko beste lan bat Kriminologiaren Euskal Institutuan egindakoa da, Antonio Beristain jaunaren eskutik. Erakunde horretako lehendakariorde da eta bertan argitaratu ditu egiaztatutako ikerketa ugariren emaitzak.

Zehazki medikuntza esparrukoak ez direlako curriculumean ipintzen ez dituen beste argitalpen ugari ere baditu. Argitalpen horietako batzuk bisitatzen dituzten mendietako haitzulo, leize eta eremu karstikoei buruzkoak dira, irteera horietan lagun izaten dituenekin batera argitaratutakoak.

Gipuzkoako Karta Arkeologikoa egiten ere parte hartu zuen, Antropologia-Arkeologia sailean. Beste zenbait ekarpen ere egin ditu Espainiako Paleopatologia elkarteko aldizkarian.

Lege eta Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean, eta bertan etengabe irakasten aritu da 1983/84 ikasturteaz geroztik. Hogeita hamar urtez, hain zuzen ere.

Prozesu judizial anitzetan parte hartu du Espainian nahiz Espainiatik kanpo peritu judizial modura, besteak beste, Espainiako ordena-indarrekin zerikusia duten tortura kasuetan edo Lasa eta Zabala auzian. Kritika gogorrak egin dizkie Espainiako estamentu judizialei, bai torturari dagokionez, bai eta, Pakoren ustetan, gai larri hori dela-eta aipatutako estamentu horietako zigor ezari dagokionez ere.

Honako argazki honetan, Pako Etxeberria gure herriko semea lanean ikusten dugu Aranzadi Zientzia Elkartearen laborategian, bere emazte Lourdes Herrastirekin batera.

Aranzadi Zientzia Elkartearen barruan, Pakok berak historialariz, antropologoz, auzitegiko medikuz, arkeologoz, psikologoz eta beste hainbat boluntarioz osatu duen lan-talde baten zuzendaria da; talde horrek, Espainiako Gerra Zibileko eta gerra ondorengo diktadura frankistako desagertutakoei eta hobi komunei buruzko ikerketak egin ditu

Lasa y Zabala. Sus críticas a los estamentos judiciales españoles en relación con la tortura y la, a su entender, evidente impunidad que en ese grave asunto se da en ellos, son durísimas.

En la siguiente fotografía vemos a nuestro herrikoseme Paco Etxeberria trabajando en el laboratorio de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, en compañía de su esposa Lourdes Herrasti.

En el seno de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, dirige un equipo de trabajo que él mismo ha formado, compuesto por historiadores, antropólogos, médicos forenses, arqueólogos, psicólogos, además de otros voluntarios, para el estudio de los desaparecidos y de las fosas comunes de la Guerra Civil Española y la posterior dictadura franquista, habiendo colaborado con distintas asociaciones de Memoria Histórica en más de un centenar de exhumaciones en toda la península.

Por todos estos méritos, la Diputación Foral de Gipuzkoa le concedió el Premio Derechos Humanos "Gipuzkoa Giza Eskubideak 2006", por la trayectoria académica y profesional en el campo de la Medicina Forense.

El Gobierno Vasco concedió el Premio Derechos Humanos "Rene Cassen 2007" al equipo que dirige en la Sociedad de Ciencias Aranzadi, por el proyecto de investigación sobre los desaparecidos de la Guerra Civil.

En su pueblo natal, Beasain, la Cofradía de la Morcilla, le nombró Cofrade de Honor el 5 de febrero de 2010.

Y este año, nuestra Asociación Cultural Beti Bizi le ha concedido el nombramiento de Limaco de Oro 2013, de cuya decisión todos los beasaindarras nos sentimos orgullosos, pues sabemos que es un reconocimiento totalmente merecido, al igual que todos los anteriormente citados y que, a buen seguro, no van a ser los últimos ni mucho menos.

Pako Adiskidea: Eskerrik asko egiten ari zeran guztiengatik, eta Zorionak!

eta Memoria Historikoarekin zerikusia duten hainbat elkarterekin elkarlanean aritu da gorpuak hobietatik ateratzeko penintsula osoan egindako hainbat eta hainbat –ehundik gora– ekimenetan.

Merezimendu horiengatik guztiengatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Giza Eskubideen saria eman zion 2006an, Auzitegiko Medikuntzan izandako jarduera akademiko eta profesionalarengatik.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, 2007ko Rene Cassen Giza Eskubideen saria eman zion Aranzadi Zientzia Elkartean Pakok zuzentzen duen lan-taldeari, Gerra Zibilean desagertutakoei buruzko ikerketa-proiektuarengatik.

Bere sorterrian, Beasainen, Odolkiaren Kofradiak Ohorezko Kide izendatu zuen Pako 2010eko otsailaren 5ean.

Aurten, gure Beti Bizi kultur elkarteak 2013ko Urrezko Barea izendatu du eta beasaindar guztiok harro gaude hartutako erabakiarekin, jakin badakigulako, lehen aipatutako guztiak bezala, hau ere ondo merezitako aitorpena dela, eta ez dela, segur aski, azkena ere izango, ez horixe.

Pako adiskidea: eskerrik asko egiten ari zaren guztiagatik eta zorionak!

Josetxo Zufiaurre

NUÑEZ/BENGOETXEA

CORTINAS Y COLOCACIÓN / TELAS A PESO

Joan Iturralde, 11 - Telefonoa: 943 16 12 29 - Faxa: 943 88 41 84 - 20200 BEASAIN
E-mail: jose.nunez@allianzmed.es

Goierriko Nazioen Mundua: azken urtebeteko jarduna

Goierriko Nazioen Mundua (GNM) izeneko mugimenduak azken urte honetan ere, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubideaz bere mezua zabaltzen jarraitu du. 2008an Idiazabalen sortu eta 2009 eta 2010 urteetan Goierrira zabaldutako jardunak, aurreko urteetan eginei segida eman die.

Hiru urtetan zehar irudiak eta lekukotzak biltzen aritu ondoren, Jon Maiak eta bere lantaldeak GAZTA ZATI BAT izeneko dokumentala burutu eta 2012-04-21ean estreinatu zen Donostiako Viktoria Eugenia antzokian, arratsaldeko 7etan, *Giza Eskubideen X. Zinemaldian*. Estreinaldian, besteak beste, bertako agintari, politikari, kulturgile eta pertsona garrantzitsuez gainera, han izan ziren Xavier Solano (Eskoziako SNP alderdiaren aholkulari politikoa) eta Brian Currin abokatu hego afrikar eta bitartekaria ere. Filmaren ondoren, Jon Maia zuzendariak, Begoña Del Teso zine adituak egindako galderei erantzun zien eta ondoren Xavier Solanok eta Jon Maiak eskoziarrekin izandako harremanez eta filmaz nahiz erabakitzeko eskubideaz solasaldia burutu zuten ikus entzuleen partaidetzarekin. Bigarren emanaldi bat ere egin zen Donostian apirilaren 25ean.

2012-04-21ean, hainbat pertsonaia Viktoria Eugenia antzokiko estreinaldira sartzen

Urtebete pasatxo da hil zela, baina Beasaingo dantzariok ez dugu hark egindako lana eskertu gabe utzi nahi

Si no estoy equivocada, comencé a bailar antes de cumplir los 6 años en el grupo La Salleko Adiskideak. Solía ir muy contenta a los ensayos que se realizaban en el colegio de los frailes: Maria Jesús Álvarez y Mari Karmen Huizi nos acogían con dulzura, hasta convertir la danza en una continuación de nuestros juegos. Sin embargo, el profesor de los chicos me parecía un poco temible, pues desde mi pequeñez veía a aquel muchacho de voz vigorosa casi como un gigante. Era Raimon Gamaio. Pronto me di cuenta que no era nada temible; al contrario, me percaté que los días del dantzari-txiki nos ofrecía Kases y Coca Colas y que era una compañía extraordinaria para disfrutar de la montaña rusa en nuestros viajes a Artxanda. En definitiva, que era una persona de gran corazón.

Hace poco más de un año nos dijo adiós inesperadamente y los dantzaris de Beasain no pudimos saldar la deuda contraída con él. Hace 10 años, con motivo de la publicación del libro "Dantza Beasainen: Aurtzakak 25 urte", tuve la oportunidad de hablar largo y tendido con Raimon en torno al origen del grupo de bailes. En esa entrevista se reflejan de alguna manera la labor realizada por Raimon y su gran corazón y generosidad. Allá donde se encuentre, deseamos que la lea como una humilde muestra de nuestra gratitud.

Oker ez banago, 6 urte bete aurretik hasi nintzen dantzan, La Salleko Adiskideak taldean. Poz-pozik joaten nintzen fraileen ikastetxeko entseguetara: goxo hartzen gintuzten Maria Jesus Alvarez eta Mari Karmen Huizik, jolasaren jarraipena izateraino. Aldiz, beldurgarri xamarra iruditzen zitzaidan mutilen irakaslea, nire txikitasunetik ia erraldoi ikusten nuen ahots sendoko mutil gazte hura. Raimon Gamaio zen. Laster konturatu nintzen ez zela batere beldurgarria; aitzitik, dantzari-txiki egunetan kokakola eta kasak ematen zizkigula eta konpainia bikaina zela Artxandarako txangoetan mendi errusiarrean ibiltzeko. Bihotz handia zuela.

Urte dezente gehiago behar izan nuen jabetzeko musu trukeko zenbat lan egin zuen umemokoz osatutako dantza talde hura aurrera ateratzeko. Are, zeinen garrantzitsua izan zen haren lana euskal dantzek Beasainen segida izan zezaten. Oro har, taldeko gizona zen Raimon, taldeari emana, dantza taldearen aurretik saskibaloi taldean edota ondoren Loinatz Abesbatzan erakutsi zuen bezala.

Urtebete pasatxo dela, ezustean, agur esan zigun, eta, nolabait, berarekin geneukan zorra kitatu gabe geratu ginen Beasaingo dantzariak. Duela 10 urte, dantza taldearen sorreraren inguruan Raimonekin luze solasteko aukera izan nuen, 'Dantza Beasainen: Aurtzakak 25 urte' liburuaren aitzakian. Elkarrizketa horretan Raimonek egindako lana eta haren bihotz eta borondate handiak ispilatzen dira, nolabait. Dagoen lekuan irakur beza gure esker onaren adierazpen xume gisa:

70.eko hamarkadaren hasierako Beasaingo hamaika saltsatako perrexila zen Raimon Gamaio; batik bat, La Salle ikastetxearekin zerikusia zuten mugimenduetan ibiltzen zen: La Salle-CAF taldean saskibaloian jokatzen zuen, eta, horrez gain, La Salleko Gazte Elkarteko lehendakaria zen. Orobat, Adiskideak dantza taldeko kidea zen eta baita Goierrikoa ere. Hala, La Salleren inguruan eta dan-

tzen bueltan zituen jardunak batzeko aukera sortu zitzaion 1972an: dantzari zela jakinik, ume eta gaztetxoei dantzan erakusten hasteko eskatu zioten La Salleko anaiek. "Romualdo anaiak egin zidan proposamena. Nonbait bazuten interesa beren ikasleen artean euskal dantzei buruzko arreta pizteko, eta horixe eskatu zidan, mutikoei dantzan erakusten hasteko", agertu du Gamaiok.

Nonbait, ez zuen zalantza handirik izan. Ez berak, ez Adiskideak taldeko gainerako kideek ere. "Taldera eraman nuen proposamena, eta egokia iruditu zitzaien umeekin taldetxo bat sortzea, besteak beste, etorkizuneko harrobia sortzeko aukera ikusi zelako. Taldetxo hari izena jartzeko ere, bi ekimenak batu genituen: La Salleko ikasleak zirenez Salleko eta Adiskideakekin lotura zuenez, Adiskideak. Beraz, biak gehituta Salleko Adiskideak".

Hamar mutiko inguratu zituen lehen urrats hartan Raimon Gamaiok: Iñaki Garcia, Joxean Begiristain, Juan Ignazio Andueza, Rafael Blanco, Xabier Matxain, Euxebio Lasa, Joxi Azurmendi, Juan Antonio Ros, eta Jose Ignazio Peñagarikano eta Juan Jose Peñagarikano anaiak. Txistulariak, berriz, Iñaki Imaz eta Juantxo Imaz anaiak. 1972ko otsailean hasi ziren entseatzen, La Salleko goiko patioan.

Garai hartan, euskal dantzen inguruko mugimendua puri-purian zegoen, eta, ondorioz, bizkor egiten ziren gauzak. Hain justu, prestatzen hasi eta denbora gutxira, hilabete eskas batzuen buruan, egin zuen jendaurreko lehendabiziko saioa mutiko talde hark, Andoainen. "Ez dut inoiz ahaztuko aurreneko aktuazio hura, besteak beste, dantza bakar bat genekielako: Agurra. Baina problema handirik gabe atera ginen plazara", nabarmendu du Gamaiok.

Gainera, jendaurreko emanaldi haren ondorioz, beste txistulari talde bat ere batu zitzaion Salleko Adiskideak-i, zehazki, Txanboren ikasle ziren gaztetxoak: Xabier Sarasola, Julio Arraiza, Palli Aseginolaza, Leon... Sallekoren hasierako txistularien entseguetako bat entzun zuen nonbait Txanbok, hain justu, Andoaingo emanaldi hura prestatzen ari zirenetako bat, eta Agurreko pasarte batean nota bat ez zutela behar bezala ematen ohartu zen. Zuzenketa horrekin abiatu zen Sallekoren eta Txanboren ikasleen elkarlana.

Baina dantzari txikien talde haren zabaltzea ez zen horretara mugatu; 1972ko otsail hartan mutikoak baino ez ziren hasi Gamaiorekin, baina laster agertu zuten zenbait neskek ere dantzan egiteko gogoa: "Mutikoekin hasi eta hurrengo urtean,

1973an, neskato talde bat etorri zen eurek ere dantza egin nahi zutela esanez. Noski, ezezkorik ezin esan, eta Adiskideak-en zein Goierrin dantzari ziren Maria Jesus Alvarezi eta Mari Karmen Huiziri proposatu nien neskatoei erakusten hasteko. Baiezkoa eman zidaten, eta hala abiatu zen neska taldea", azaldu du Gamaiok.

Hogei bat neska-mutikorekin hasi zen Salleko Adiskideak, La Salleko fraideen ekimenaren eta Adiskideak eta Goierri taldeetan trebatu ziren gazte haien musu trukeko lanari esker; hasi eta hazi, urtero-urtero haur labekada berriak inguratzen baitziren La Salleko ikastetxean zein Loinatz tabernako jangelan egiten zituzten entseguetara, eurak ere dantzari izan nahi zutela esanez. "Dinamika hura zen: gero eta ume talde gehiago hartzen genituen, gero eta gazteagoak. 7-8 urteko neska-mutikoekin hasi ginen, baina laster lauzpabost urtekoak ere hartzen hasi ginen. Ia ohartu gabe, 135 bat ume biltzera iritsi ginen".

Ondorioz, lana ere biderkatu egin zen. Nola edo hala, Raimon Gamaio, Maria Jesus Alvarez eta Mari Karmen Huizi iristen ziren haur sail hari dantzan irakasteko gai izatera (tartean, beste batzuen laguntza ere izan zuten: esaterako, Gamaio soldadutza egitera joan zenean, Goierriko dantzari zen Martin Iraolak hartu zuen mutilei irakasteko ardura), baina, horrez gain, beste lan asko egin behar ziren haurren dantza talde bat aurrera ateratzeko. Arropak behar ziren, dantzarako uztai, ezpata eta gainerakoak; haren guztiaren ardura hartu behar zen, gutxieneko azpiegitura bat eratu. Eta dirua, beti bezala, eskas. "Mutilen lehendabiziko arropak egiteko, Gipuzkoako dantzetako soinekoak, aitari eskatu nion dirua itzuliko niola esanda. Egia esateko, bueltatu gabe geratu zen", dio barrez.

Nola edo hala diru gabezia jendearen borondatezko lanarekin ordezkatu zuten. Inguruko jende asko jarri zuten Sallekoren inguruan dantzan. Makina bat lan egindakoak dira, adibidez, Joakin eta Dino Oiarbide anaiak, Karlos Unanua eta beste hainbat. (...) Gainera, piskanaka, Salleko Adiskideak-eko neska-mutikoak hainbat herritan emanaldiak egiten hasi ziren, Bilbon, Gasteizen, Donostian, Elorrion, Urretxun... eta kanpora ateratzen zirenean zaindu egin behar izaten zen ume sail hura. Autobusak antolatu, haurren ardura hartu, dantza saioak gidatu... Makina bat bider entzun zituzten 'Sardina bat' eta antzeko kantuak joan-etorriko autobus bidaietan; halaber, ume haien makina bat kexu negar zein poz algara entzundakoak dira. "Hasiko banintz dantzari txikiei ordaindutako kas eta kokakola guztiak kobratzen, igoal aberastuko nintzateke!", agertu du algara batean Gamaiok. Gainera, ikasturte amaieran eskurtsioa egiten zuten urtero Bilboko Artxandako jolas-parkera. "Mendi errusiarrean ibili nahi izaten zuten ume guztiek, baina bakarrik ez zieten uzten sartzen. Heldu baten laguntza behar izaten zuten. Niri ez zaizkit batere gustatzen traste horiek, altuerak benetako izua ematen baitit. Baina umeak ibiliko baziren gu haiekin sartu behar, eta lehendabizi itzuli bat bi haur alboan hartuta, eta gero beste bat beste birekin, eta hirugarrena, eta laugarrena... Ezin da esan zenbateraino zorabiatuta amaitzen nuen", dio Gamaiok. "Orain, egia esateko, ez nuke agoantatuko halako ume saila. Baina orduan gustura ibiltzen ginen. Poz handiak eman dizkit. Batzuetan errieta handiak egiten nizkien, baina gaur da eguna gaztetxo haietako bat taberna batean topatu eta igoal txikito bat ordaintzen didana, eta horrek ematen duen poza izugarria da".

Idurre Eskisabel

Gorka Zubeldia, un beasaindarra en el mundillo del celuloide

Televisión, teatro, cine... son los mundillos en los que se ha venido desenvolviendo desde hace años el actor de 'Beasainmendi', Gorka Zubeldia.

Este, daba sus primeros pasos en este mundillo de la escena, y lo hacía de la mano de Rosa Rojo, en el taller municipal de Teatro. Su aparición en la pequeña pantalla, en sus distintas cadenas, ha venido siendo hasta hace unos años habitual.

Tuvo presencia relevante en el musical de P. Arrupe o en al representación d ela opera 'Carmen' en el Kurasal.

La apuesta por los escenarios teatrales, en su currículum no quedan de lado, ya que ha aportado su granito de arena con la compañía Contrapunto en la puesta en escena de la obra de Miguel Unamuno 'El otro'.

Gorka albergaba extraordinario recuerdo de sus papeles en el Corral de la Comedia de Almagro y en el Teatro Romano de Mérida

Hace ahora casi cuatro años arrancaba el rodaje que vino seguido del estreno de lo que algunos ya califican como 'comedia metafísica'. Se trata de la película que lleva por título '12+1', que tiene al actor beasaindarra metido de lleno en el personaje principal de la misma

Finalmente, tras pasearse por diversas ciudades del Estado como Sevilla, Málaga, Ourense, Barcelona o Palma y con bautizo internacional incluido,

ya que también tuvo pase en Londres y en Francia, llegó en febrero a Donostia

Fue una apuesta difícil pero los resultados están llegando en forma de galardones y reconocimientos. «En el festival de Málaga nos otorgaron dos premios a la mejor película y al mejor director, en la conocida como sección paralela», indicaba un no poco contento Gorka.

RODAJE CON MUCHO AIRE

Gorka Zubeldia rebobinaba el rodaje de este filme. «Nos llevó unas cinco semanas en la isla de Fuerteventura y con el viento de primavera como 'intruso'». No olvida las dificultades en ciertos momentos del rodaje con «jornadas maratonianas, en las que por momentos teníamos que andar descalzos sobre piedras...». Pero todo fue superado por otros momentos extraordinarios vividos por todos, «que fueron los más», subraya.

Gorka resalta que todos los actores y resto de las personas implicadas en el proyecto «éramos coproductores, por lo que la implicación es total, colaborábamos en todo».

El beasaindarra encarna al personaje principal de la película, el de Jesús de Nazaret. «Para entrar en el personaje, me leí algunos libros en los que Él es el eje, y además vi algunas películas. El objetivo, y creo que se ha cumplido, era el de encarnar a un Jesús de Nazaret que vivió en Galilea como ser humano con sus virtudes, defectos y manías... como persona de carne y hueso, sin entrar en el lado transcendente».

SINOPSIS

La apuesta por esta comedia ha sido fuerte y los resultados traducidos y reflejados en una extrordinaria acogida por las salas por las que ha pasado.

La sinopsis se centra en «unos tipos que van por el desierto buscando algo. Lo que buscan sólo lo sabe uno, al que llaman el Maestro. Buscar en el desierto es peligroso pues, a parte de las inclemencias propias de un lugar sin agua y con muchas horas de sol, el Bautista se enfrenta a una crisis de fé», destaca Gorka. «Un loco que de creyente pasó a asesino, de la misma forma iluminada. Así que el grupo duda entre pensar que buscan a Dios o a la muerte, o si estas dos cosas son la misma».

Es un film coproducido entre los miembros del propio equipo y en el que se ponen en escena, a través de la figura de Jesús, encanada por el actor beasaindarra y los apóstoles, diversos conceptos de carácter teológico con trazos de dramatismo y humor, según señala el director Chiqui Caravante.

En la película «se ve a Jesús y a sus apóstoles de una manera en la que no estamos acostumbrados: perdidos, sin saber qué buscan. Hemos fabulado sobre una fábula. Es un Jesús contemporáneo, a pesar de que la película es de época. Para mí Jesús existió y era un poeta radical que decía cosas muy bonitas, y en la película hay textos directamente sacados de lo que se supone que fueron sus palabras», indica Caravante.

Juantxo Unanua

Bertsomovieda-ren arrakasta bigarrenez

Aurtengo Bertsomoviedaren edizioak ere eman du berea. Ale ederrak, lehia handia, sari gehiago eta hobeak... zer gehiago eska dakioke lehiaketa bati?

Arrano Kultur Elkartearen eskutik eta Beasaingo Udalaren eta Orkliren babesarekin antolatu da bigarrenez Bertsomovieda lehiaketa. Iaz baino lan gehiago jaso ditugu aurten. 33 lan aurkeztu dira guztira, iaz baino 7 gehiago, 23 gazteen mailan eta 10 helduenean. Kontuan izan behar da 33 lanen atzean 250 parte-hartzailetik gora daudela. Orokorrean, iaz baino maila parekatuagoa izan da eta ondorioz epaia ematea zailagoa. Halaber, lan kopuruaz gain, nabarmentzekoa da lanen, irudien, musikaren nahiz bestelako euskarri eta baliabideen aniztasuna.

Apirilaren 12an egin genuen Beasaingo Igartza jauregian bertsomovie-rik onenen sari banaketa. Antolakuntzako kideek eta udaleko eta Orkliko ordezkariek bideratutako ekitaldian, sariak banatzeaz gain saritutako bertsomovie-ak proiektatuta ikusteko aukera ere izan genuen.

SARITUAK

Publikoaren sarian iaz irabazle izan zen gabiriarren taldea eta Gero Pentzauku produkxions (oñatiarrak) lehia estuan ibili ziren azken unera arte. Azkenean 962 bozekin aurre hartu zuten oñatiarrek (899 gabiriarrek).

Gazteen lanetan aipatzekoa eskoletatik jasotako lan kopurua eta ondorioz eskertzekoa hainbat irakaslek burutu duten lana ere.

Aurten, iaz baino 850 € gehiago banatu dira saritan, denera 2500 €. Hauxe, epaimahaiak 2013ko martxoaren 27an erabakitakoa:

–Gazteen saria: **400 € BIZITZAREN IKUSPEGIAK (Ane Beloki).**

–Helduen sari nagusia: **1.000 € 9 HILABETE (Beira taldea eta Izaskun Bernedo).**

–Aipamen berezia: **350 € BAKARDADEAN EZKUTATURIK (Ander Lizarralde eta Lohitzune Sistiaga).**

–Bertsorik onenak dituen bertsomoviea: **250 € 9 HILABETE (Beira taldea eta Izaskun Bernedo).**

–Publikoaren saria: **500 € BADATOR MUNIZIPALA! (Gero Pentzauku Produkxions).**

Jasotako Bertsomovie guztiak www.bertsomovieda.com webgunean ikusgai izan dira eta hala daude oraindik ere ikusi nahi dituenarentzat. Bidebatez, webguneak jaso duen bisita kopurua ere azpimarragarria izan dela esan nahi genuke.

Bertsomoviedaren antolakuntzatik eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu bereziki lehiaketan parte hartzera animatu diren guztiei. Oso gustura gaude lehiaketak izan duen erantzunarekin eta sarituak zein saritu gabeak eta baita oraindik animatu ez zaretenak ere datozen urteetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Zure bertsomovie-aren zain izango gara.

Izar Sarriegi

Udazken eta udaberriaren zirriborroak
Pinceladas del invierno y del otoño



Cáritas y voluntariado

La realidad de los servicios de Cáritas Parroquial es una realidad sometida a cambios. En primer lugar por el incremento de las personas que no disponen de los recursos mínimos para satisfacer sus necesidades básicas, algo fácil de entender en los tiempos actuales. Parece que la palabra crisis lo dice y explica todo, aunque a veces nos cuesta entender y asumir que el número de las personas sufrientes se vaya incrementando exponencialmente, también en nuestro Goierri. Parece que una sociedad denominada "democrática" debería tener hechos sus deberes, los deberes relativos a los derechos humanos, más concretamente, los referidos a la satisfacción de las necesidades básicas, léase, alimentos, cobijo/techo, etc.

Por mucho que nos sorprenda, nos encontramos con que el número de las personas que acuden a los servicios sociales se incrementa día a día. Considerando los datos de las personas atendidas en Caritas Parroquial de Beasain, tenemos que en el año 2011 las personas atendidas fueron 97 y en el 2012 lo fueron 227. El incremento de estas cifras nos dicen algo. Así mismo la cantidad de dinero destinada en el 2011 fue de 8.592,63 € y, en el siguiente, en el 2012 fue de 16.369,35 €.

Es esta una fotografía no estática sino dinámica y cambiante. La realidad que vislumbramos a corto plazo es una realidad que no mejora y no va a mejorar en cierto tiempo y por el contrario va a empeorar. La sociografía actual del Goierri presenta unas tasas de desempleo muy inferiores a las del resto del Estado, unas tasas del orden del 11%. Además se da la circunstancia de que las ayudas de la Administración Vasca son superiores a las del resto de las Comunidades del Estado. Por ambas circunstancias se está dando lo que denominamos "efecto llamada/reclamo" que consiste en que las personas necesitadas que conviven con nosotros informan de su situación aquí y ahora a sus familiares y amistades provocando su inmigración a estos lares. Aspectos ambos de por sí positivos si fueran acompañadas de posibilidades reales de inserción socio-laboral. Mal que nos pese, la economía de nuestra comarca, una comarca del secundario (eminentemente industrial) no da oportunidades laborales a persona sin cualificación técnica. Es aquí donde vislumbramos el problema que de concretarlo o definirlo de algún

modo, lo definiríamos como bolsa de pobreza, es decir, incremento de personas que de por sí solas no pueden construir su propia vida con autonomía y dignidad, viéndose obligadas a supervivir con subsidios y ayudas de la Administración así como de toda la red de ayudas de losagentes sociales de la Comarca del Goierri.

Desde nuestra pequeña y humilde experiencia, sin ánimo de ser malos agoreros, entendemos que la inserción laboral que presenta nuestra realidad no les es en absoluto favorable.

La coyuntura actual, mal que nos pese, es la que es: integración cada vez más intensa de nuestra sociedad en el mercado mundial, crisis del proyecto de integración europea, el desplazamiento de los polos geoestratégicos de crecimiento y de poder hacia los denominados países emergentes (China, India, Brasil, Rusia,..etc., las revoluciones tecnológicas especialmente relacionadas con la comunicación y la información de la era digital, los rápidos cambios demográficos, la intensificación de los procesos migratorios y el envejecimiento de la población.

Todos estos elementos introducen nuevas formas de pensar, de actuar y de vivir, que afectan a nuestra cultura y a los valores democráticos que la sustentan, implicando cambios que nos afectan a todos: racionalización del gasto social, crecimiento de las desigualdades y la emergencia de nuevos problemas y necesidades.

Esta perspectiva cambiante también concierne al papel del voluntariado. Las actividades del voluntariado constituyen una rica experiencia de aprendizaje, permiten el desarrollo de aptitudes y competencias sociales y contribuyen a la solidaridad. Son inmensas las oportunidades y retos para la acción voluntaria en el campo de lo social. Todo apunta a que caminamos hacia tiempos nuevos en los que los ciudadanos podamos y debamos suscribir mayores compromisos en nuestras respectivas comunidades.

En la actualidad, si bien reconocemos la amplitud del debate en torno a este tema, quién es qué y la funciones que competen tanto a la Administración Pública cuanto a los ciudadanos, parece que tendemos hacia una sociedad en la que los ciudadanos tengamos un protagonismo mayor con objeto de que la dimensión de lo comunitario se fortalezca creando tejido social y capital relacional. En esta tesitura, parece conveniente y necesario el promover una mayor cultura del voluntariado como un instrumento canalizador de la solidaridad, como movilizador de voluntades y promotor de iniciativas sociales, así como de instrumento de participación comunitaria.

En Cáritas Parroquial de Beasain participamos de esta opinión, entendemos que se necesitan cada vez más personas voluntarias con cierta capacidad de altruismo y entrega a los demás, particularmente a los más desfavorecidos. Sirvan estas pocas líneas para invitar y animar a los beasaindarras a trabajar a favor de los más desfavorecidos en cualquiera de las organizaciones que existen en Beasain: Cruz Roja, Bategite, Nagusilan, Cáritas, etc.

GRUPO CÁRITAS DE BEASAIN

González

Taller de Enmarcación

Espejos enmarcados a medida - Láminas impresas en papel fotográfico
Láminas impresas en lienzo - Murales - Vinilos - Cuadros
Lienzos levante - Óleos españoleto

Nekolalde, 22 BEASAIN Tel. 943 882388

2012 - Loinatz Abesbatza, koru musika katea ez da eten...

Comenzamos el año con la ilusión del principiante. Junkal toma las riendas del coro y esto hace que todos estemos expectantes ante los nuevos retos.

Pero, cosas del destino, llega marzo y, en plena preparación del primer concierto del año, Raimon, que nos animaba a lanzarnos a por los 26, nos deja y, con su marcha, el coro siente el vacío del amigo siempre presente y, musicalmente, la pérdida de una voz que era un valor seguro para el grupo.

El cronista local, hasta esta fecha también coralista dedica estas palabras en su memoria...

Urteari hasiberriaren ilusioz eman genion hasiera. Junkalek abesbatzaren zuzendaritza hartua zuen eta erronka berrien aurrean gogotsu ginen.

Baina, patuaren gauzak, martxoa iritsi berria zela eta lehen kontzertuaren prestaketa lanetan ginela, Raimon, aurrekoan 26.naren bila bultzatzen gintuena, zendu zen eta lagunaren hutsunea sentitzen da oso bai eta, musikalki, taldeari gorputza ematen zion ahots baten galera somatu ere.

Herriko kronistak, ordura arte abesbatzaren partaidea zenak hitz hauek dedikatu zizkion...

Raimon, in memoriam

01.04.12 - 02:07 , JUANTXO UNANUA EXCORALISTA |

La coral Loinatz ofrece hoy un concierto en recuerdo, 'in memoriam' de Raimon. Casualidades de la vida nos llevaron a Raimon y mí a ser partícipes del último concierto como integrantes de Loinatz Abesbatza, en diciembre pasado. Además, disfrutamos de un 2011 musicalmente intenso debido a que celebrábamos los 25 años del coro. Pasan por mi retina muchas imágenes: las del primer 'pote' tras los ensayos de los viernes, en el Tti-Tta o en el Kitto y tus chistes o los de Iñaki que los celebrabas con sonora carcajada.

O el concierto del 'Requiem' de Fauré y tú, Raimon, sentado junto a Jesús García Aréjula. O la celebración del aniversario en mayo con el concierto con los ex y en la posterior fiesta en la plaza, que gozo, que disfrute. O en el Topaketa de Tolosa, y el previo del finde en San Asensio. Y en diciembre con el Conjunto Barroco en el que disfrutaste como un enano. Te fuiste cuando aún tú y tu potente, sonora y bien timbrada voz erais necesarios. Ahora se os echa mucho de menos. Pero, hoy en el concierto no faltará nuestro aplauso, el tuyo desde allá donde estés, y el mío desde los bancos de la parroquia.

Pero, como dice el título de este artículo, la cadena de la música coral no se detiene.

Tenemos un concierto en ciernes, el primero de Junkal como nuestra directora, y debemos dar y ofrecer todo nuestro bien hacer.

Destino Fuenterrabía; fecha 24 de marzo de 2012: 30º Ciclo de Música Sacra.

Baina, artikulu honen izenburuak aipatzen duen bezala, koru musika katea ez da eten...

Gure begien aurrean kontzetu bat dugu, Junkalen garaiari hasiera ofiziala emango diona, eta gure lan ona eman eta eskeini behar dugu.

Helmuga Hondarribia; 2012ko martxoak 24: 30. Eliz Musika zikloa.

EGITARAUA - PROGRAMA

Zuzendaria: Junkal Guerrero

- SALVE (X. Sarasola - 1960)
  Organo: Arantxa Gastesi
- CANTIQUE de Jean Racine (G. Fauré-1845-1924)
  Organo: Arantxa Gastesi
- AVE MARIA (F. Biebl - 1906-2001)
- SONETO (J. C. Mugica/Textua: Sta.Teresa de Jesús)
- UBI CARITAS (O.Gjeilo - 1978)
  Piano impro: X. Sarasola
- TOTA PULCHRA ES (O. Gjeilo - 1978)
- Missa brevis "Pro Pace"tik... (J. Busto - 1949)
  1.KYRIE
  2.GLORIA
- LOINATZ-CREDO (J. Busto - 1949)
  Loinatz Abesbatzaren XXV. Urteurrenerako enkargaturiko lana
  Violín: Francisco Herrero

Y la cadena sigue...

Próximo concierto: Beasain; fecha 1 de abril de 2012.

Eta katea ez da eten...

Hurrengo ekitaldia: Beasain; 2012ko apirilak 1.

Loinatz Abesbatzaren zuzendaria: JUNKAL GUERRERO

EGITARAUA - PROGRAMA **Zuzendaria:** Junkal Guerrero

- AVE MARIA (F. Biebl - 1906-2001)
- SONETO (J. C. Mugica/Textua: Sta.Teresa de Jesús)
- UBI CARITAS (O. Gjeilo - 1978)
  Piano impro: X. Sarasola
- TOTA PULCHRA ES (O. Gjeilo - 1978)
- VERET TULI MUN SILIMIHINI (Pekka Kostiainen -1944)
- CORAZON CORAZA
  Música: Beatriz Corona - 1962
  Texto: Mario Benedetti -1920-2009
- HAIZEAK DAKAR
  Música: Xabier Sarasola - 1960
  Letra: Tere Irastorza
- NESKATX EDERRA (Xabier Sarasola -1960)

Beasain - 2012ko apirilak 1

Como todos los años, llegaban las fiestas patronales y el "Muruko Mari" o "sua" de Xabier Sarasola es un componente importante dentro de la bajada de Mari. Allí, Loinatz Abesbatza en directo desde el kiosco.

El año avanza y la cadena de la música coral... no se detiene.

Urtero lez, Beasaingo jaietako atarian geunden eta Xabier Sarasolak sortutako "Muruko Mari" edo "sua" Mariren jetsieraren osagai garrantzitsua da. Bertan, Loinatz Abesbatza plazako kioskotik zuzenean.

Urteak aurrera segitzen du eta koru musika katea... ez da eten.

Llega junio y la celebración del 150 aniversario de la canonización de San Martín de Loinaz requiere algún tipo de reconocimiento. Y que mejor que recuperar la obra estrenada en diciembre de 1997, compuesta por Xabier Sarasola con texto de Andoni Sarriegi... "Cantata de San Martín"... coro, órgano, piano, trompas y timbales colmaron la parroquia de musicalidad.

Además, en este concierto, tuvimos en mente tanto a Claude Debussy en el 150 aniversario de su nacimiento como a Alexander Lesbordes y Francisco Escudero en el centenario de su nacimiento, respectivamente.

Cita en Beasain el 10 de junio de 2012...

Ekainean gaude, Loinazko San Martinen kanonizazioaren 150. Urteurrena ospatzen da eta aintzatespen bat edo beste merezi du. Zein hobe eta 1997ko abenduan estreinatutako musika lan bat berreskuratzea baino. Andoni Sarriegiren testu batean oinarrituta eta Xabier Sarasolak musikatutako "Kantata de San Martin"...abesbatzak, organuak, pianoak, trompek eta tinbalek parrokia musikaz bete zuten.

Bien bitartean, Claude Debussyren jaiotzaren 150. Urteurrena eta Alexander Lesbordes eta Francisco Escuderoren jaiotzen mendeurrenak ospatuko ditugu ere.

Hitzordua, Beasainen ekainak 10ean...

Zuzendaria: Junkal Guerrero

"Claude Debussy, Alexander Lesbordes eta Francisco Escuderoren mendeurrenak: koru musika kate etengabea"

EGITARAUA - PROGRAMA

- GEISTLICHES LIED (Canto spiritual) (op. 30)... Johannes Brahms (1833-1897)
- THE LORD BLESS YOU AND KEEP YOU (John Rutter (1945-)
- LOINAZKO SAN MARTIN KANTATA...
  Letra: Andoni Sarriegi
  Música: Xabier Sarasola (1960-)
  Piano: Arantxa Gastesi
  Organoa: Gerardo Rifón
  Trompas: Jon Lizaso, Unai Muro eta Mikel Uribesalgo
  Percusión: ANDER BEREZIARTU
- IZAR EDERRA... Francisco Escudero (1912-2002)
- DIEU! QU'IL LA FAIT BON REGARDER!... Claude Debussy (1862-1918)
- LILI EDER BAT... Javier Busto (1949-)
- EUSKAL JOKOAK...
  Letra: Josune López
  Música: Javier Busto (1949-)
- SEGALARIAK... Josu Elberdin (1976-)
- KAIKU... Alexander Lesbordes (1912-1969)

Y la cadena sigue...

Antes de las vacaciones de verano debemos hacer frente a un compromiso contraído, intercambio coral, con nuestros nuestros compañeros de Zarauz.

Y con los aires del verano nos acercamos a Zarauz; 7 de julio de 2012...

Eta katea ez da eten...

Udako oporrak hartu baino lehenago, konpromezu bati aurre egin behar diogu, abesbatza trukez, Zarauzko gure lagunekin adostutako kontzertua...

Eta udako aireekin batera kostaldera joan ginen. Zarautz, 2012ko uztailak 7an izan zen hau.

EGITARAUA - PROGRAMA **Zuzendaria:** Junkal Guerrero

- AVE MARIA (F. Biebl - 1906-2001)
- SONETO (J. C. Mugica/Textua: Sta.Teresa de Jesús)
- TOTA PULCHRA ES (O. Gjeilo - 1978)
- UBI CARITAS (O.Gjeilo - 1978)
  Piano impro: X. Sarasola
- DIEU! QU'IL LA FAIT BON REGARDER!...
  Claude Debussy (1862-1918)
- VERET TULI MUN SILIMIHINI (Pekka Kostiainen -1944)
- CORAZON CORAZA
  Música: Beatriz Corona - 1962
  Texto: Mario Benedetti -1920-2009
- IZAR EDERRA... Francisco Escudero (1912-2002)
- LILI EDER BAT... Javier Busto (1949-)
- EUSKAL JOKOAK...
  Letra: Josune López
  Música: Javier Busto (1949-)
- SEGALARIAK... Josu Elberdin (1976-)
- KAIKU... Alexander Lesbordes (1912-1969)

Vacaciones. ¿La cadena interrumpida? Ni pensarlo...

Nada más comenzar en septiembre debemos ponernos las pilas lo antes posible. Basauri y octubre están a la vuelta de la esquina.

Dicho y hecho. Basauri nos acogió en fiestas y el público se mostró encantado con nuestro trabajo.

Basauri, 12 de octubre de 2012...

Oporrak. Katea eten? Ez eta pentsatu ere...

Oporretatik bueltan pilak jarri eta martxari ekin behar diogu ahalik eta azkarren. Basauri eta urria bertan ditugu.

Esan eta egin. Basauri jaietan zen eta bertako entzuleak pozik azaldu ziren guk egindako lanaz.

Basauri, 2012ko urriak 12...

EGITARAUA - PROGRAMA **Zuzendaria:** Junkal Guerrero

- SONETO (J. C. Mugica/Textua: Sta.Teresa de Jesús)
- AVE MARIA (F. Biebl - 1906-2001)
- TOTA PULCHRA ES (O. Gjeilo - 1978)
- UBI CARITAS (O.Gjeilo - 1978)
  Piano impro: X. Sarasola
- DIEU! QU'IL LA FAIT BON REGARDER!...
  Claude Debussy (1862-1918)
- VERET TULI MUN SILIMIHINI (Pekka Kostiainen -1944)
- CORAZON CORAZA (Música: Beatriz Corona - 1962
  Texto: Mario Benedetti -1920-2009)
- IZAR EDERRA... Francisco Escudero (1912-2002)
- LILI EDER BAT... Javier Busto (1949-)
- EUSKAL JOKOAK...
  Letra: Josune López
  Música: Javier Busto (1949-)
- KAIKU... Alexander Lesbordes (1912-1969)
- SEGALARIAK... Josu Elberdin (1976-)

Pero nuestra labor no se ciñe a ensayar y participar en conciertos. También organizamos, en colaboración con el CIT de Tolosa y otros coros del entorno, algún que otro evento de calidad contrastada.

Credo - Ukrania

Este año, recibimos, por un lado, a Zarautz Abesbatza y, por otro, al coro Credo de Ucrania. La parroquia de San Martín tuvo el lujo de albergar la actuación de estos últimos; música coral por los cuatro costados. Es más, esta agrupación coral ganó el Certamen Internacional de Masas Corales de Tolosa 2012.

Navidad llamando a nuestras puertas y con ella, como es tradición, el compromiso del concierto que cierra nuestro año coral. Con vistas al futuro y teniendo en cuenta la importancia de la cantera, este año como en algunas otras ocasiones, cantaremos juntos Musika Eskolako koroa eta Loinatz Abesbatza.

28 de diciembre de 2012, Parroquia de Beasain...

Baina gure lana ez da entseguetara joan eta kontzertuetan parte hartu bakarrik. Tolosako CITarekin edo beste abesbatzarekin bat kalitate handiko ekitaldiren bat edo beste antolatzen dugu ere.

Zarauzko Abesbatza

Aurten, alde batetik, Zarauzko Abesbatza eta, bestetik, Ukraniako Credo abesbatza izan genituen gurean. San Martingo parrokiak azken hauen kontzertuaren egoitza izan zen; musika korala alde guztietatik. Horrez gain, abesbatza honek 2012.ko Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa irabazi zuen.

Eguberriak ate joka eta haiekin batera, ohitura dugun bezala, gure urteari amaiera ematen dion kontzertuaren konpromezua. Etorkizunari begira eta harrobia zaindu nahiean, aurten beste batzuetan bezala Musika Eskolako koroa eta Loinatz Abesbatzak batera egingo dugu lan.

2012ko abenduak 28, Beasaingo Parrokian...

EGITARAUA - PROGRAMA

BEASAINGO MUSIKA ESKOLAKO ABESBATZA / Zuz.: Xabier Sarasola

- GAU ILUNAK EZ BADU - Xabier Sarasola
  Pianoa: Arantxa Gastesi
  Flauta: Maddalen Sarasola
- ZENBAT TXIKI BEHAR DA - A Furundarena (X. Sarasola)
- DONA NOBIS PACEM - M.Lynn Lightfoot
- BI BIHOTZ - Junkal Guerrero
  Pianoa: Junkal Guerrero
- BELENGO HERRI POLITA - Austriar doinua (X. Sarasola)
  Akordeoia: Izaskun Insausti
  Pianoa: Arantxa Gastesi

BEASAINGO MUSIKA ESKOLAKO KORUA ETA LOINATZ ABESBATZAKO AHOTS ZURIAK / Zuz.: Junkal Guerrero

- AVE IESU - Xabier Sarasola
  Pianoa: Xabier Sarasola

LOINATZ ABESBATZA / Zuz.: Junkal Guerrero

- MAGNUM MYSTERIUM - Tomás Luis de Victoria (1548-1611)
- A CHRISTMAS CAROL - Charles Ives (1874-1954)
- NATA LUX - Morten Lauridsen (1943-)
- MAGNUM MYSTERIUM - Morten Lauridsen (1943-)
- JAUN HANDIAK IKUSAZUE - Alberto Mitxelena
- ORRA MARI DOMINGI - Mold.: Junkal Guerrero (1968-)
- DUERME, DUERME NEGRITO - Atahualpa Yupanqui/Emilio Solé
  Sopranoa: Jaione Callejo
- CANDOMBE DE SAN BALTASAR - Abel Montenegro-Yabor/ Liliana Cangiano

DENOK ELKARREKIN / Zuz.: Xabier Sarasola

- Hator-hator - Mold.: Xabier Sarasola

Otro año ha transcurrido con sus devenires, aquí seguimos y...
la cadena de la música coral no se detiene.
Gracias!

Urtebete pasa da bere gora beherekin, hemen jarraitzen dugu eta...
koru musika katea ez da eten.
Eskerrik asko!

Xabier Matarranz

la hogeita hamar urte dauzkan Ostadarraren kronika

Ostadar Dantza Taldea fue creado por Jesus Mari Garate en 1984, con el objetivo de enseñarles a los jóvenes beasaindarras en qué consistía el folklore y los bailes tradicionales vascos. Con casi 30 años de trayecto, el grupo ha realizado diferentes actos y a pesar de sus vicisitudes vividas, ha podido salir adelante.

Ez naiz ni izango Beasainek dantzarekin lotura estua daukala dioen lehenengoa, eta ziurrenez, azkena ere ez naiz izango. Igartzako zortzikoa eta San Martingo ezpata-dantza dauzkagu horren erakusletzat, edozein lekutan hauek dantzatuz gero Beasaingo nortasuna islatzen dutelako, eta urteen poderioz, gure herriko historiaren parte bihurtu direlako.

Zalantzarik gabe, bereziki Aurtzaka Dantza Taldea (1979an sortua) izan da aipatutako herriko dantza horiek *munduratu* eta Beasainek dantzarekin daukan konpromisoa gehien frogatu duen lehen dantza-taldea, eta hainbat urteren ostean, oraindik ere konpromiso horrekin diraute. Euskal kulturari eta dantzei dagokien begirunea, gauza berriak ikasteko nahia eta aldi berean, herrikoa dena mantendu eta zabaltzea Aurtzakaren baloretzat jo daitezkeenez, ez da harritzekoa dantza-talde hau herriaren ikur nagusietako bat bihurtu izana.

Hala eta guztiz ere, Aurtzaka ez da Beasaingo dantza-talde bakarra. Beronek baino ibilbide laburragoa daukan beste dantza-talde bat ere aurki daiteke gure herrian era askotako dantza eta *koloreak* biltzen saiatzen dena. Hortik datorkio izena hain zuzen ere, herriko bigarren dantza-talde honi, hau da, Ostadar Dantza Taldeari.

1980ko hamarkadaren hasieran Aurtzakako dantzari eta irakaslerik garrantzitsuenetakoa zen Jesus Mari Garate. Hala ere, helduez gain, haurrak ere euskal folklorearen eta dantzen mundura sartzeko gogoa zeukan. Hasiera batean, eskolaz kanpoko ekintza gisara herriko neska-mutil batzuei dantzako eskolak ematen hasi zen Antzizar kiroldegian. Aisialdizko talde hura ordea, laster bihurtu zen dantza-talde serio, eta 1984an sortu zen ofizialki Ostadar Dantza Taldea, herriko 10-15 neska-mutikok osatzen zutelarik. Sortze-prozesu horretan Garatek bidelagun izan zituen taldeko haur horien gurasoak eta Juan Mari Zurutuza, urte luzean Ostadarren txistulari baina gauza guztien gainetik lagun fina izan zena.

Urteak pasa ahala, gero eta jende gehiago batu zen Ostadarrera, eta urte gutxitara, haurren eta helduen taldea osatu zuten. Hasierako garai haiek pixka bat gorabeheratsuak izan ziren, batez ere ez zutelako entsegu-gela finkorik izan: hasierako ikasleek Loinazpe ikastetxeko gimnasia-gela eta Gaztedi lokala (gaur egun, Txilibutxof-en topalekua dena) ezagutu izan zituzten entsegu-gela gisa, harik eta 1990ko hamarkadaren erdialdera, CAF enpresak Oriamendi kaleko 10. zenbakian daukan lokala utzi zien arte. Orduz geroztik, bertan aurki daiteke dantza taldearen *egoitza ofiziala.*

Asko aldatu dira hasierako garai haietatik gaur egun arte, Ostadarren bilakaera eta pertzepzioak, baina oraindik ere hasierako filosofia berarekin lanean jarraitzen dute, herritarrei (neska-mutil gazteei bereziki) euskal dantzak erakutsiz eta ikusaraziz; horretarako, garrantzi berezia eman izan dio taldeak beti pausoen kalitateari edota dantza bakoitza zer eta nondik datorren ezagutzeari. Hau kontuan izanik, era askotako dantzez eta *kolorez* jantzi ohi izan dira Ostadarren ikuskizunak. Hala ere, horretarako oso garrantzitsuak izan dira urte hauetan beste hainbat dantza-talderekin izandako lankidetza-harremanak, besteak beste, Altsasuko Aitzindarirekin (talde hau ere Garatek sortua), Iruñeako Iruña taldekoekin, Amezketako Arkuperekin eta nola ez, herrikideak diren Aurtzakakoekin.

Ostadarrek hala ere, bere ekarpen propioak ere egin izan ditu beasaindarrak dantzara animatzeko: esate baterako, Ihauterietako larunbatero herriko kaleak alaitzeko ardura daukate 1992tik, eta herriko jendea bertan parte hartzera animatzen dute. Horrez gain, Gabonen inguruan urtero ikuskizun berezi bat antolatu ohi dute Usurbe antzokian Eus-

kal Herrian dantzatzen diren dantza ezberdinak konbinatuz, eta gabon kutsua islatzeko Enrike Zelaiak musikatutako *Hator Hator* dantzatuz (beronen koreografia ere Garaterena da). Horrez gain, nabarmentzekoa da ere, dantza-taldeko haurrek urteetan zehar Aurtzakak antolatutako dantzari-txiki egunetan parte hartu izan dutela.

Ostadarreko kideak Usurbe antzokian Hator Hator dantzatzen (2010eko abendua)

Ostadarrek ere (sarritan Aurtzakarekin batera) eman izan ditu herritik kanpoko ikuskizunak. Guztietan nabarmenena, zalantzarik gabe 2008an, Ostadar eta Aurtzakako kideek Eskoziara eginiko irtenaldia izan zen, Goierriko *Nazioen Mundua* ekimenaren barnean. 2010etik aurrera gainera, dantza-talde gonbidatu gisa ere parte hartu izan dute Baigorrin urtero ospatu ohi den Nafarroako Egunean. Azkenik, aipatu beharrekoa da ere, dantza-ekintzetatik aparte ere, Ostadarrek hainbat euskal kulturgintzarekin lotutako hainbat ekintza egin izan dituela: besteak beste, euskal baserritar jantziei nahiz euskal soinu-tresnei buruzko hitzaldiak eskaini izan dituzte azken hiruzpalau urteetan, eta Korrika-n ere, Aurtzakarekin batera, metro batzuetan lekukoa ere eraman izan du azken hiru edizioetan. Bestelako lankidetza-harremanen artean ere, oso harreman garrantzitsuak ditu besteak beste Herriak Elkarlanean eta Goizeresi Txistulari Bandarekin.

OSTADAR ETA LOINATZ JAIAK

Ostadarrek, talde beasaindarra izanik, lotura berezia dauka herriko Loinatz jaiekin, eta urtero uzten dute bertan euren hondar aletxoa. Ia-ia dantza-taldearen sorreratik, festetako bigarren igandea "alaitzeko" ardura hartu izan dute. Ardura hori gainera oso ondo etorri izan zaiela nabarmendu izan dute bertako kideek "herriko txoko guztietara euskal dantzak aldi berean eramateko" aukera eman izan dutelako.

1980ko hamarkadaren amaieratik dantza-suelto txapelketa antolatzeko ardura izan du Ostadarrek. Bertara Euskal Herri osoko hainbat dantzari profesional etorriak izan dira bereziki Segurako dantza-txapelketa prestatzeko (nahiz eta "teorikoki" bi txapelketen artean loturarik ez izan). Hasierako urteetan, herriko dantzariek parte hartzen zuten gehienbat, baina benetan interesatzen zena jendeari Euskal Herri mailako dantza-ikuspegia ematea zenez, kanpoko dantzariak ekartzeko gero eta pauso gehiago eman ziren denbora pasa ahala. Hainbat urtez, Loinazko San Martin plaza izan da festetako bigarren igande arratsaldez herriko nahiz kanpoko euskal dantzarien bilgune. Zoritxarrez ordea, 2000ko hamarkadatik aurrera, bertaratzen zen bikote-kopurua murriztuz joan izan zenez, Ostadarreko kideek ekintza hau alboratzea erabaki zuten, eta 2007ko Loinatz jaietan izan zen Ostadarrek antolatutako dantza-suelto txapelketa.

Hala ere, esaera zaharrak dioen bezala, *ate bat ixten bada, leiho bat irekitzen* da; paradoxikoki gauza bera gertatu zen Ostadarren kasuan. 2001. urtean, oraindik ere dantza-suelto txapelketak egiten zirelarik, bikoteez gain dantza-talde osoak gonbidatzeko pausoa eman zuen Ostadarrek; modu horretara Euskal Herri osoko taldeak, euren dantzak eta jantziak Beasaingo txoko guztietan ikusteko aukera ahalbidetu zuen. Ekintza aldetik ere berritzailea izan zen, kanpoaldeko auzoetan aldi berean euskal dantzak ikusteko aukera lehen aldiz zeukatelako beasaindarrek (izan ere, ordura arte San Martin plazara mugatzen ziren horrelako ikuskizunak).

Dantza-suelto txapelketa desagertu ostean, dantza-topaketek hartu dute Beasaingo jaietako bigarren igandean Ostadarrek antolatutako ekintzen erreleboa. Azken urteetako topaketen dinamika honelakoa izan da: goizean zehar, euskal dantza-talde ezberdinek (lauzpabost izan ohi dira gonbidatuak gutxi-gorabehera) euren ikuskizuna eskaini izan dute herriko kaleetan zehar, batzuk Antzizar polikiroldegitik abiatuta eta besteak Mariarats kaletik abiatuta eta Loinazko San Martinen estatua parean elkartu ohi dira. Jarraian, bazkaria egin ohi dute dantza-talde guztiek (Ostadarrekoak barne) Loinazko San Martin plaza-azpian, eta arratsaldean, Kale Nagusian zehar, erromeria mugikorra egin ohi dute dantza-talde guztiek. Modu horretara, beste hainbat ekintzen artean, Loinatz jaietako azken eguna musika eta dantza ezberdinez osatu izan dute azken urteetan.

2013ko Loinatz jaietan ere, Ostadarrek antolatutako dantza-topaketek ez dute kale egingo. XIII. edizioa izango da aurtengoa, eta hauek izango dira gonbidatu gisa etorriko diren taldeak: Adurtza (Gasteiz), Ortzadar (Iruñea), Illunbe (Pasaia), Amets Bide (Ordizia) eta Arbola (Baigorri). Hau ikusita beraz, zalantzarik ez da geldituzen ostadarraren dantza-kolore ezberdinak ere presente egon ohi direla beasaindarrontzat hain garrantzitsuak diren Loinatz jaietan!

ERORIZ IBILTZEN IKASI DUEN OSTADARRA

Ia hogeita hamar urteko ibilbidea burutu duen dantza talde honek hainbat ekarpen egin izan baditu ere, bertako dantzariek ordea, hainbat zailtasun eta

oztopo jasan behar izan dituzte. Momentu askotan gainera, dantza-taldearen biziraupena ere zalantzan ikusi izan dutela aitortu izan dute bertako kideek.

1994an, dantza-taldea sortu eta hamar urtera, Ostadarrek "haur izateari utzi" eta bere kabuz "heldutasunera" jauzi egin zuen, orduan utzi baitzuen Jesus Mari Garate sortzaileak taldearen ardura. Garai hartan Garatek Altsasuko Aitzindari taldea ere sortu berria zuen eta ezinezkoa zitzaion aldi berean bi taldeak koordinatzea. Hala ere, gelditu ziren dantzariek aurrera egiteko indarra eta borondatea erakutsi zituzten eta dantza-taldeak hasitako bideari jarraitu zion. Esan beharrekoa da ere, Garate bera ere ez dela inoiz Ostadarretik erabat kanpo gelditu, urteetan zehar jarraipen berezia egin diolako taldeari bere babesa eta aurrera egiteko aholkuak emanez.

Ostadarreko kideak, haur zein gazteak, Ihauterietako ikuskizuna egin ostean (2006)

2001eko azaroaren 16an ordea, kolpe gogorragoa jaso zuten Ostadarreko dantzariek: Juan Mari Zurutuza, hasierako garaietatik euren txistulari eta laguna izan zena, bihotzekoak jota hil zen. Gaur egun dihardutenen dantzari askoren esanetan, "Ostadarrek bizi izan duen momenturik latzena" izan zen, eta inflexio-puntu nagusi bat markatu zuen dantza-taldearen ibilbidean. Izan ere, euren esanetan, *betikoa* zen pertsonaia garrantzitsu bat galtzeak erabat baldintzatu zuen orduz geroztik Ostadarren ibilbidea. Dantza taldeak omenaldi hunkigarri baten bidez eskertu zion 2001eko abenduan euren maitasuna urte askoan euren bidelaguna izan zen txistulariari.

Handik gutxira, dantza-taldeak jaso zuen beste kolpe bat, kide-kopurua bat-batean txikitzea izan zen. Heldu batzuez gain, oraindik ere bertan gelditu zirenak dantzari gaztetxoak ziren, eta inolako abisurik gabe, Ostadarren etorkizuna euren esku zegoela ikusi zuten; momentu hark sorrarazi zien zirrara oraindik ere gogoan dutela, garbi zuten *eurek egiten ez bazuten ez zuela inork egingo.* Ardura handiz, hasierako urteetako filosofia mantentzeko ilusioa nahiz gauza berriak egiteko gogoa izan zen dantza-taldea aurrera ateratzeko giltza.

Hala eta guztiz ere, Ostadarrek kolpeak jaso arren oraindik ere bere koloreek bizirik diraute azken urteetako lan eta esfortzuei esker. Azken urteetan gainera, kolore horiek oraindik ere indar handiagoa hartu dute gero eta kide gehiago dituztelako, eta horrez gain, gero eta dantza-ekitaldi gehiagotan parte hartzen ari direlako. Gaur egun, guztira 30 kide inguru ditu dantza-taldeak eta ostiralero, Oriamendi kaleko 10. zenbakian duten egoitzan entseguetan ikus ditzakegu lehenik haurrak eta gero helduak biharko egunera begira Beasaingo herriari dantza-ikuskizun berriren bat erakutsi ahal izateko.

Ostadarreko haurrak Dantzari-txiki egunean (2000)

Abestiak dioen bezalaxe, Ostadarrek *eroriz ikasi du oinez.* Ia hogeita hamar urteko ibilbidea duen ostadarrak hainbat sentimendu bizi izan ditu denbora guzti honetan: poza, tristura, amorrua, itxaropena... baina bertako kideek eta kanpoko dantzari nahiz taldeek emandako laguntzari esker gai izan da hasierako bere koloreak mantendu eta indartzeko.

Laburbilduz eta hasieran egin dudan baieztapena ziurtatuz, garbi esan genezake 2013. urtean ere, Beasainek lotura eta konpromiso estua daukala dantzarekin, baina baita dantzak Beasainekin ere. Horren erakusle ditugu alde batetik Aurtzakaren profesionaltasuna, eta bestetik, Ostadarren koloreak.

BIBLIOGRAFIA

1. EDB GIPUZKOA: *Juan Mari Zurutuzari omenaldia,* 2001-11-16. Interneten ikusgai: http://www.dantzan.com/albisteak/juan-mari-zurutuzari-omenaldia.

2. ESKISABEL, I.: "Ostadar, kolore guztiak", "Dantza-taldeak Beasainen", *Beasaingo paperak: dantza Beasainen: Aurtzakak 25 urte,* 2004ko urria, 12. alea, 104-106. orrialdeak.

3. ERREDAKZIOA: *Goierriko 'Nazioen Mundua' herri ekimenak, Eskoziako Highlands-etara darama autodeterminazio aldarria,* 2008-3-19. Interneten ikusgai: http://www.euskalkultura.com/albisteak/goierriko-nazioen-mundua-herri-ekimenak-eskoziako-highlands-etara-darama-autodeterminazio-aldarria.

Xabier Meabe

Antología de la fotografía y el cine

La fotografía es una forma de grabar imágenes cuando una lente y diverso material fotosensible se encuentran.

La primera cámara del siglo XI se inventa en Arabia para observar los satélites o los eclipses solares. Mas tarde será la base de la fotografía.

En 1728 Johaans Schulce (1687-1744) un medico alemán dijo: que el Nitrato de Plata se oscurece cuando se expone a la luz.

La primera imagen fotográfica la de Joan Nicephpro Niepce (1765-1833), fueron 8 horas de exposición.

En 1837 el proceso daguerretipo del francés Louis Daguerre (1757-1851).

Después seguirían otros como el ingles Xilli Fox Talbo 1800, este proceso de negativo a positivo permite hacer copias de las fotografías.

Ya tenemos la maquina fotográfica, después vinieron los que se dedicaron a perfeccionar el invento, que fueron varios, pero sería muy largo nombrarlos a todos.

En 1913 la película de los hermanos Lumiere se emplea por primera vez y era de 13mm.

En 1876 ya tenemos la primera cámara compacta de 35mm y se lanza al mercado.

A partir de entonces la industria fotográfica crece vertiginosamente y podemos recordar tiempos pasados.En nuestras ferias los fotógrafos ambulantes provistos de sus cámaras y trípodes tratando de hacer clientes que se quieran retratar.

Aquella maquina que era un simple cajón y el operario o fotógrafo se escondía detrás de un paño negro al mismo tiempo que decía: miren un momento a la cámara... quietos y ya está y después de esperar un rato sacaba las fotografías chorreando agua.Y observábamos como verdaderamente estábamos retratados.

S. Urdampilleta

Todos tenemos en nuestras casas una caja con fotografías viejas apergaminadas por el paso inexorable del tiempo.

Señoras vestidas con vestidos que hoy llamarían la atención por sus formas y colores, vestían con largos collares y suntuosos sombreros, era una época que ya no volverá .Esas fotografías las guardamos con cariño porque el paso del tiempo es para todos y es que en la vida todo es efímero.

Hoy los tiempos han cambiado mucho y la mayoría de las personas poseen una maquina fotográfica de gran calidad y nos retratamos en cualquier lugar sin flaxes ni poses, al mismo tiempo estas maquinas sirven para comunicarse por lo que son unos aparatos de gran utilidad y calidad,y que en la vida moderna se hacen poco menos que imprescindibles.

Hoy todos nuestros pueblos disponen de modernos establecimientos dedicados al arte fotográfico.

El famoso cine que teníamos en Beasain que tenia por nombre CINEMA SALOON,era un cine moderno con su bonito patio de butacas y su pequeño anfiteatro, con sus laterales que te dolía el cuello de tener que mirar la pantalla de costado.

Es que el cine es y será el entretenimiento de un pueblo, aparte del fútbol claro está.Porque el cine es arte y es cultura y se ven cosas que nunca se hubieran visto.

Ahora está la Televisión que es otro gran invento y que es una continuación del cine.Solo que ahora lo tenemos, al cine, en casa.

Beasain tiene un sitio idóneo para retratarse escalerillas de la Plaza.Cuantas personas se han retratado en es lugar? Asociaciones culturales, colegios, comuniones, bodas, peñas de amigos, etc. y todo aquel que le ha parecido bien.

Y todos los que hoy tenemos la dicha de vivir algún día, que sea lejano, posaremos en una caja o en un álbum para que las futuras generaciones nos recuerden como fuimos.

A Villafranca , hoy Ordizia,acudiamos los chavales a ver las películas de cine mudo de Charles Chaplin ,Pamplinas, Búster Queaton,Arol Lloid , las películas de Fu Manchu,que eran tres: Fu Manchu ataca,La venganza del Si Fen y la derrota de Fu Manchu.

Desde el anfiteatro jaleábamos las vaqueradas animando al mejor.

La primera película de cine sonoro que se proyectó en el Echezarreta fue Bombas en Montecarlo.

Francisco Olea

Oriako Pasealekua 12, 2. D
20200 Beasain (Gipuzkoa)
605 77 47 82

Raúl Bonilla

albañilería
igeltseritza

TXILIBU TXOF
BEASAINGO AISIALDI TALDEA
txilibutxof.blogspot.com

Eguberri Bezperaren iluntzean Olentzero

Tximini usaina herriko kale eta mendietan zabaltzen denean, Eguberri jaiak bertan ditugula datorkigu berehala burura. Handik gutxira herriguneko kale eta zuhaitzetan gabon-argi koloretsuak pizten dira, urteko azken jaiak iristear daudela gogorarazteko. Eta, zalantzarik egon ez dadin, gabon kanta tradizionalak lehen aldiz entzuten dira, Euskal Herriko gure gabon-kanta ederrak.

Abenduaren 24a egun berezia izaten da Beasainen. Urtean zehar armairuan gordeta izan ditugun baserritar trajeak txukundu, soinean jarri eta irrifartsu irteten gara kalera. Arrazoi batengatik edo besteagatik herritik kanpora joan behar izan zutenak ere elkartzen dituen eguna da. Horrelakoetan inorrek ez du bere jaioterria non dagoen ahazten.

Kantuari lotutako eguna izaten da Eguberri bezpera. Kantu hotsak egunak argitu bezain laster zabaltzen dira etxe, kale eta baserrietatik. Ikastetxeko kideekin, koadrillakoekin edo kantuak soilik lotzen dituen beste edonorekin. Txistu soinuaz edo trikitixaz, gitarraz ala pandero soinuz. Denetariko musika tresnak bihurtzen dira egun honetan erabilgarri.

Etxeko txikienentzako egun berezia izaten da. Udaletxeko erloju zaharrak eguerdiko hamabiak jotzen dituenean, Olentzero eta Mari Domingi plazako kioskoan agertzen dira beasaindarrak agurtzeko eta jarraian txikienen eskutitzak jasotzeko.

Orain dela gutxirarte, Eguberri bezperako iluntzean, Olentzero eta Mari Domingi karrozan eramaten zituen desfile ederra egiten zen Igartzatik habiatuta. 2007an gauzatu zen azken aldiz. Hurrengo lau urtetan desfilerik ez zen egon, baina bai kantuan irteteko tradizioa mantendu zuen herritar talde bat.

Baina, zorionez, Txilibutxof taldearen proposamena medio, 2012ko gabon gauean Olentzero eta Mari Domingik berriro ere Beasaingo kaleak zeharkatu zituzten, karroza baten gainean, txikienen gozamenerako.

Horretarako, Kantujira taldearen ekimena eta gurea batu genituen. Txistulariak musikaz arduratu ziren, Kantujirako kideak kantuaz, Txilibutxof karroza prestatzeaz eta desfilean zehar, antortxen laguntzaz, Olentzero eta Mari Domingi babesteaz. Aurtengoan ere, Ekaitz Goikoetxea bertsolariak ekitaldia borobildu zuen bere bertsoen bitartez.

Kantu entseguak eginak zeuden, karroza prest zegoen. Eguraldiaren laguntza besterik ez zen falta. Eta lagundu zuen. Nork esango luke abenduaren 24an geundela!

Igartzako galtzadarri zaharren gainean, Belengo ermita parean, ekin genion ibilaldiari. Lehenbizi txistulariak, ondoren Kantujirako kideak, eta azkenik, Olentzero eta Mari Domingi antortxeroz inguraturik. Dozena erdi bat geldialdi egin genituen Gabon Kanta ederrez gozatzeko. Hiru bat abesti, eta jarraian Ekaitzen bertsoa. Eta aurrera. Horrela ibilbidea osatu eta San Martin Plazara iritsi arte.

Bertan, ekitaldia amaitzeko, Txilibutxofeko gaztetxoek, Hator Hator abestia dantzatu zuten, Txistularien musika eta Kantujiraren ahotsarekin. Bi protagonisten hitz batzuk eta hurrengo urterarte.

Eguraldia lagun, jendetza bildu zen kalean. Jende asko kalean, eta baita parte hartzen ere. Ehun lagun inguruk hartu genuen parte desfile honetan. Mila esker laguntza lanetan, parte hartzen eta baita ikustera gerturatu zineten guztioi!

Centro social "Aranealde Elkartea" gizarte zentroa

Hemen zuzendaritzak 22 hilabete hauetan egindako lanen laburpena azaldu nahi dugu. Besteak beste, datu-base informatizatua osatu, liburutegia itxi, bulegoa eta zibergela berritu, argi-indarraren kontsumoari buruzko azterketa egin, yoga ikasleentzat armairu berriak erosi edota atezaina aldatu dugu.

Atezaina aukeratzeko lehiaketa publikoa egin zen eta curriculuma aurkeztu zuten 13 lagunetatik zuzendaritzak bi aukeratu zituen atezain-lanak urtebetez egiteko. Bi aldeek hala nahi izanez gero, urtebeteko kontratu hori luzatu ere egin ahal izango da.

Bada beste gai bat guri oso larria iruditzen zaiguna: eraikinean agertzen hasi diren pitzadurak, hain zuzen ere. Udalari idatzi bat bidali zitzaion arazoaren azterketa egiteko eskatuz, eta une honetan tramankulu batzuk ipini dira, urte betean pitzadurak zer egiten duten ikusteko.

Martxoan, berriz, urteroko batzarra egin genuen, eta bertaratutako 120 bazkideen oniritziarekin gai guztiak onartu ziren.

Orrialde hauetatik dei bat luzatu nahi diegu aurre-jubilatu guztiei zahar-etxeko bazkide egin daitezen, jarduera (eskulanak, pintura, yoga, etab.) eta zerbitzu (kafetegia, ile-apaindegia,...) ugari daudelako eta zahar-etxeko batezbesteko adina jaitsi egingo litzatekeelako.

Os vamos a resumir un poco los trabajos realizados por la junta en estos 22 meses

Algunas cosas que antes no existían: Una base de datos informatizada completa, El cierre de la Biblioteca, ahora oficina y Ciber-Aula nueva, los cierres de la sala multiusos, las encimeras de todas las mesas, , la acometida de agua caliente con gas al hogar, se ha hecho un estudio sobre el consumo de electricidad para consumir la cuarta parte, los estatutos nuevos, el nuevo nombre del centro, los carnés nuevos, contamos con un nuevo proyector, la compra de armarios para las alumnas de yoga, la identificación por foto de los socios en las fichas, se ha reducido el gasto de mantenimiento del ascensor a menos de la mitad de antes, y por último el cambio de conserje.

En este último punto el del conserje se presentaron 30 personas al concurso público y se les entrego en mano todas las condiciones que deberían presentar a "ARANEALDE"

De las cuales presentaron el currículo 13 personas y después de la valoración hecha de cada una de ellas y por votación secreta por los 11 miembros de la junta al final salió la elegida MONICA RABANO TORRES y JESSICA GONZALEZ (En Comunidad de Bienes), que comenzaran en el centro el 1 de abril de 2013 en principio con un contrato de un año, prorrogable a mas si ambas partes están de acuerdo

Y como un tema que a nosotros nos parece muy grave, de un año y medio a esta fecha justo cuando entramos nosotros nos dimos cuenta que en el edificio estaban apareciendo grietas y a partir de ese momento mandamos un escrito al ayuntamiento firmada por todos los miembros de la junta para su estudio, en estos momentos hay unos aparatos puestos en el edificio para su comprobación durante un año.

En el centro sigue habiendo mucha actividad, como talleres de MANUALIDADES, HILOS, PINTURA, TALLA, YOGA, CORO GUREA y BAILE DE SALON.

También hay servicio de CAFETERIA, PELUQUERIAS DE SEÑORAS Y CABALLEROS, MASAJISTA.

El 7 de marzo del 2013 se celebro en el hogar una Asamblea Ordinaria en la que después de presentar todas las gestiones de casi 2 años y fin de esta legislatura.

ORDEN DEL DIA

1.- Saludo del Presidente

2.- Lectura y aprobación, si procede, del ACTA de la Asamblea Anterior.

3.- Examen y aprobación del Balance de resultados del ejercicio de 2012.

4.- Memoria y gestión de la Junta Directiva correspondiente al citado ejercicio.

5.- Examen y aprobación, si procede, del presupuesto previsto para el ejercicio del año 2013.

6.- Ruegos y Preguntas.

Dada la explicación muy completa a los 120 socios que acudieron a la reunión que duro aproximadamente 45 minutos se termino la sesión con la aprobación de todos los puntos.

Queremos nuevamente hacer un llamamiento a todos los prejubilados para que se animen a hacerse socios del hogar ya que hay muchas actividades y así contribuiría a rejuvenecer la plantilla del centro ya que la media de edad sigue siendo muy alta aunque en los dos primeros meses del año han entrado unos 40 socios nuevos.

Agradecemos a la sociedad BETI BIZI la oportunidad de dejarnos un espacio en la revista del BEASAIN FESTIVO para el conocimiento de BEASAIN de nuestras inquietudes por el hogar.

La junta directiva

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN
943 88 65 58 - 616 69 82 88
Polg. Zubi-erreka 42 - LAZKAO
www.toldosagustin.com
PRECIOS ESPECIALES PARA COMUNIDADES
AMPLIA GAMA DE SOLUCIONES EN PROTECCION SOLAR

Korrika 18: eman euskara elkarri

Bi urtez behin egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoiaren 18. edizioa martxoaren 14tik 15erako gauean pasa zen Goierritik. Martxoaren 14an arratsaldeko lau eta erdiak aldera Andoaindik abiatu eta gaueko hamaikak aldera iritsi zen Beasainera, Olaberria aldetik. Gaua eta eguraldi hotza izanagatik ere, herritar ugari elkartu ziren herriko kaleetan lasterketarekin bat egin eta gure hizkuntzaren aldeko aldarria lau haizetara zabaltzeko.

Hain zuzen ere, Korrika 18k lelo argia erabili du aurtengo edizioan: eman euskara elkarri. Euskarak izan behar du euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko aukeratutako hizkuntza: elkarri hitz egiteko, elkar entzun eta ulertzeko... Hori dela-eta, garrantzitsua da euskara dakienak ikasi nahi duenari irakastea, ulertzen duenak hitz egiten duenari erabiltzeko aukera ematea eta agintariek herritarrei ikasteko bideak erraztea. Azken batean, elkarri ematea euskara bakoitzak duen egoeratik abiatuta. Korrika 18k euskara denona dela eta denontzat izan behar duela azpimarratu nahi izan du.

EUSKARA IKASLEAK, OMENDUAK

Korrika 18k euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka pertsonak omendu nahi izan ditu, euskara ikasten eta praktikatzen ari diren guztiak, euren egoera edo jatorria dena delarik ere, beraien ahaleginarekin elkarbizitzarako aukera sortzen ari direlako. Eurak omentzeko egun osoko jaia egin zen urtarrilaren 26an Usurbilen eta Korrika 18ren dokumentalean ere euren ahalegina eta euskararekin duten harremana islatu da.

DOAKOTASUNERANTZ URRATSAK

Omentzeaz gain, euskara ikasleen lekukotza ozen plazaratu nahi izan da, ez delako zilegi bertako hizkuntza ikasteko ikasleek ordaindu behar izaten dutena ordaindu behar izatea. Doakotasuna aldarrikatu behar da, euskal herritar guztien eskubidea delako euskaldun izatea. Beraz, botere publikoei dei egin nahi izan zaie espreski, euskara babesteko eta bultzatzeko neurriak har ditzaten.

Korrika 18k euskara ikasleak omendu dituenez, Goiztiri AEK-ko zenbait ikaslek euskararekin duten harremanaren berri eman digute: zerk ematen dien indarra euskara ikasteko, zein arazo dituzten... Bijoakie euskara ikasleei guztion miresmena eta esker ona. Bejondeizuela!

Izen-abizenak: Juan Lobato
Jaioterria: Caceres
Jaioturtea: 1962
Ogibidea: Garraiolaria

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?
Seme-alabekin hitz egiteko eta baita lagunekin hitz egiteko ere.

Zein zailtasun topatu dituzu?
Nire gaixotasuna traba bat izan da ikasketa prozesuan eta baita udaletxeko bilerak etab. Maila altua eta denbora falta, denetik pixka bat.

Euskarak zer eman dizu?
Beste jende batekin hitz egiteko aukera eman dit.

Zer motibazio duzu euskara ikasteko?
Euskara ikastea da nire motibazioa eta Ormaiztegiko euskara taldea da nire motibazioa gehitzeko arrazoi bat.

Euskara erabiltzen hasi zarete?
Eskolaz kanpo hasi naiz euskaraz hitz egiten. Lanean hitz egiten dut herrian baino gehiago.

Izen-abizenak: Montserrat Martin
Jaioterria: Bartzelona
Jaioturtea: 1965
Ogibidea: Postaria

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?
Hasieran ikasteko bakarrik. Orain jakiteko

Zein zailtasun topatu dituzu?
Oso zaila da euskara. Beste zailtasuna ni naiz, ez dudalako hitz egiten. Gainera, Ormaiztegin urte askotan ez da talderik osatu eta beti hasieratik hasten da klasea, beti jende berria sartzen delako.

Euskarak zer eman dizu?
Gustura nago nire buruarekin, ikasten ari naizelako.

Zer motibazio dituzu euskara ikasteko?
Ikasten jarraitzeak motibatzen nau.

Euskara erabiltzen hasi zarete?
Oso gutxi erabiltzen dut, klasean bai baina kanpoan oso gutxi.

Eguneko menua
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Menuak enkarguz

TTI TTA
T 943 88 00 00
Kale Nagusia, 18
BEASAIN

Izen-abizenak: Carlos Alarcia
Jaioterria: Ordizia
Jaioturtea: 1994
Ogibidea: ikaslea

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?
Eskolan ikasi nuen euskara. Duela bi urte saiatu nintzen EGA ateratzen baina azkenean ez nintzen aurkeztu eta aurten neure buruari esan diot hau dela unea. Nire euskara maila hobetzeko eta EGA ateratzeko eman nuen izena euskaltegian.

Zer oztopo topatu dituzu bidean?
Gehienbat hitz egiteko orduan, nire familiako kideak erdaldunak baitira. Lagunen artean gutxi hitz egiten dugu euskaraz baina saiatzen gara. Batzuetan trabatu egiten naiz baina ondo moldatzen naiz orain.

Zer motibazio duzu ikasten jarraitzeko?
Gure hizkuntza da eta gazteek hitz egiten ez badugu, hurrengo belaunaldiek ere ez dute egingo. Orduan, guk daukagu horren giltza eta denon artean lor dezakegu hemen euskara gehiago hitz egitea.

Euskarak zer eman dizu?
Jendea eta euskal kultura ezagutzeko aukera. Espero dut etorkizunean ere gauza gehiago ematea.

Euskaraz hitz egiten al duzu egunero?
Nire anaia gaztearekin, orain hasi baita bera. Klasean gomendatu diote eta ni eta nire arreba saiatzen gara berarekin euskaraz egiten etxean. Bestela, lagunekin, batzuekin ezinezkoa den arren. Dendetan ere beti euskaraz egiten dut.

Zer eskatuko zenieke euskaldunei?
Gehiago erabili behar dutela, ahal duten neurrian, behintzat.

Zer iruditu zaizu Korrikak euskara ikasleak omentzea?
Ondo iruditu zait. Gehiago motibatzen zaitu euskara ikasten jarraitzeko. Euskara ikasten hasteak meritu handia du.

Izen-abizenak: Makuli Arbizu
Jaioterria: Iruñea
Jaioturtea: 1977
Ogibidea: Nekazari ekologikoa

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?
Tuteran jaio eta bizi nintzen eta hor oso zaila zen euskara ikastea. Lagunekin beti Iruñeara joaten ginen festara eta han beste lagunek esaten ziguten: zuek ez dakizue euskaraz! Hortaz, harra nuen barruan, euskara ikastea egitekoen artean neukan.

Zer zailtasun topatu dituzu bidean?
Oztopo pila bat eduki ditut baina denborarekin gauzak argitu egiten dira beti. Azkenean gainditu egiten ditut.

Zein da ikasten jarraitzeko motibazioa?
Harremanak egitea. Nire bizitza Euskal Herrian dago eta euskara nahi dut bizitzeko, komunikatzeko, denetarako.

Euskarak zer eman dizu zuri?
Lana daukat euskarari esker eta beste mundu batzuetan sartzen ari naiz. Musika edota nekaritza ekologikoari buruzko ikastaroak egiteko balio dit, adibidez. Oraintxe bertan oso pozik nago, gauza asko lortzen ari naizelako.

Egunerokotasunean erabiltzen al duzu euskara?
Bai. Lanean erabiltzen dut eta entrenatzen dudan neska taldearekin ere bai. Beraiekin beti euskaraz hitz egiten dut eta eurek zuzenketak egiten dizkidate. Etxean ere egiten dut euskaraz.

Zerbait eskatuko zenieke euskaraz bizi direnei?
Niri euskaraz hitz egiteko, baina errazago eta geldiago.

Zer iruditu zaizu Korrikak euskara ikasleak omentzea?
Nik uste dut guztiok motibazioa daukagulako ari garela ikasten. Ahalegin handia egiten ari gara.

Izen-abizenak: Julian Ezenarro Gartziandia
Jaioterria: Ordizia
Jaioturtea: 1945
Ogibidea: Erretiratua

Noiz hasi zinen euskara ikasten?
1965. urtean, bakarka ikasteko metodo batekin, etxean. Horrela bi urte egon nintzen eta gero gau-eskoletan. Orduan oso desberdina zen, lagunekin-eta astean bi egunetan joaten nintzen euskara ikastera. 5-8 ikasle inguru ginen. Duela hiru urte AEKn hasi nintzen eta gero utzi egin nuen. Aurten berriz matrikulatu naiz nire euskara maila hobetzeko.

Zein zailtasun topatu dituzu bidean?
Niretzat zailtasun nagusia euskaraz pentsatzea da, beti nire buruan gaztelaniara itzultzen baitut.

Zein motibazio duzu euskara ikasteko?
Hemengoa naizelako ikasi nahi dut euskara, euskal giroan bat gehiago izateko eta ez geldi-tzeko beti albo batean. Izan ere, gezurra badirudi ere, euskara ikasi gabe ez zara sentitzen integratuta. Lehen inguruko jendeak, niregatik, gaztelerara jotzen zuen, nik ez nekielako, baina orain ez da horrelakorik gertatzen.

Erabiltzen al duzu euskara zure egunerokoan?
Bai, erabiltzen dut.

Aurten Korrikak ikasleak omendu ditu. Zer iruditzen zaizu?
Ondo. Euskaltegiaren zati bat irakasleek osatzen dute eta bestea ikasleok. Ikaslerik gabe ez litzateke euskaltegirik egongo.



murumendi
ESKOLA PUBLIKOA

Murumendi ikastetxea

Ate irekiak dituen eskola
Un centro educativo con jornadas de puertas abiertas

Nolakoak dira gaur egungo eskolak, nola ikasten dute gure seme-alabek, nola hezten dira hezkuntza sistema desberdinetan...Horrelako galderak maiz egiten dira guztion etxeetan. Murumendi eskolak galdera hauei erantzun ahal izateko aukera ematen du. Amara Berri Sistemaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko modurik praktikoena ate irekiak zirela pentsatu zen ikastetxean eta iaz martxan jartzea erabaki zen. Emaitza arrakastatsua oso izan zenez, aurten ere esperientzia errepikatu egin da.

Lehen Hezkuntzan dauden ikasleen gurasoentzat zuzendua dago ekintza hau. Hiru egunetan banatzen diren jardunaldi hauetan gurasok euren seme-alabak lanean ikusteko aukera paregabea izan dute. Sistemaren ezaugarri nagusiak azaltzen dituen bileraren ondoren, gela desberdinak bisita-

Más de una vez nos hemos preguntado cómo y en qué ha cambiado la forma de enseñar actual respecto a la de hace unas décadas . ¿Qué es exactamente aprender a aprender? Mas de una vez nos hemos imaginado cómo son las clases de nuestros hij@s .Murumendi ha puesto en marcha una nueva actividad dirigida a las familias del alumnado de Primaria. Durante una jornada son testigos de lo que pasa en el aula. Esta experiencia de puertas abiertas ante la buena respuesta de las familias, se ha sistematizado.

Hasta el año pasado en las reuniones de tutoría los padres y las madres tenían la opción de visitar las aulas después del horario escolar. La novedad consiste en que en estas jornadas de puertas abiertas l@s protagonistas están en su actividad diaria. Así las familias pueden ser testigos de cómo se manejan en el día a día sus hij@s, cómo

tzen dituzte umeak normaltasunez lanean jarraitzen dutelarik: Denda, inprenta, irratia, eskulanak, irakurketa, matematika, idazketa, hitzaldiak... ikasgai desberdinetan nola lan egiten duten ikusten dute zuzen zuzenean. Protagonistak ikasleak dira eta oraingoan ikusi eta entzutea gurasoei tokatzen zaie. Ikasi, eginez ikasten da eta hori da ate irekietan ikus daitekeena.

Balorazioak oso baikorrak izan dira eta ez bakarrik gurasoen aldetik, umeei ere ikaragarrizko poza ematen die egun horretan rol hori hartzea: gurasoei beraien lana erakustea eta euren zalantzak argitzea.

Murumendi ikastetxeak ateak zabalik dituen herri eskola da. Horren adierazgarri da ikasturte honetan Udaletxeko Alkatea eta zinegotziak ezagutzera gerturatu direla., Ordiziako Oianguren Institutuko Goi Mailako moduluko ikasleak, Bidasoa aldeko zenbait ikastetxeetako zuzendaritzak beste batzuen artean.

Ate irekien jardunaldiekin Eskolako proiektuan familien parte hartzea lortzen da batetik eta Amara Berri Sistema barrutik ezagutzea bestetik.

elaboran las tareas y cómo se relacionan con sus compañer@s. Tras una reunión inicial sobre el Sistema Amara Berri los padres y las madres se adentran en el mundo estudiantil de sus hijos y sus hijas . Visitan las aulas en funcionamiento : La tienda, la imprenta, la radio, las manualidades, la lectura, las matemáticas, la escritura, las conferencias... todos los txokos de los que hablan en casa. Pueden así entender en qué consisten y cómo se manejan en su labor diaria. El turno de atender y aprender en esta ocasión es el de las familias . l@s pequeñ@s están encantad@s con su nuevo rol, el de mostrar a sus progenitores su trabajo y resolver las dudas que les surgen.

Murumendi, es un centro abierto. Así lo muestra la visita que han hecho el alcalde y concejales del ayuntamiento, equipos directivos de centros educativos de la zona del Bidasoa, alumnado del Módulo Superior de Educación Infantil del Instituto Oianguren de Ordizia entre otros.

El objetivo de estas jornadas de puerta abiertas es hacer partícipe de nuestro proyecto a las familias y dar a conocer el Sistema Amara Berri.

Iraida Martín (Murumendi ikastetxeko ama)

aNZiZaR
taberna

Igartza oleta 8 • tel. 943 884 317 • beasain • gipuzkoa

Gurutze Gorria-Cruz Roja

Actividades

SANITARIA

La actividad en esta área aumenta en los servicios preventivos, ya que día a día los requerimientos en las distintas poblaciones son necesarios, y eso lleva a una mejor planificación para optimar los recursos y no tener que contar con los recursos de otras asambleas.

En el contexto general en todo el territorio de Euskadi, este tipo de servicios esta aumentado y ello conlleva una mejor utilización de los recursos a nivel del País Vasco.

Centrándonos en el Goierri la actividad ha sido las siguientes:

1 Ambulancia 104 Días las 24 Horas Cubriendo la Red de Transporte Sanitario Urgente los fines de semana, este servicio Cruz Roja Goierri asume el gasto total del mismo, no recibiendo aportación alguna de ningún ente público.

176 Ambulancias, 38 Todo terrenos y 8 Tiendas Hospital de Campaña, son los recursos materiales que se han necesitado en el año 2012 en el Goierri

Las horas empleadas, así como los recursos humanos necesarios en los servicios en el área sanitaria son:

1330 Voluntarios / as han realizado los servicios que hemos realizado, hay que tener en cuenta que la rotación de voluntarios en los servicios es muy grande, ya que la entidad cuenta con un total de 211 voluntarios para todos las áreas que tiene Cruz Roja Goierri.

Las horas totales que se han necesitado para todos los eventos han sido 21402 horas efectivas sin contabilizar las horas de planificar los servicios, tampoco están incluidas las horas de limpieza de los recursos, así como tampoco la reposición de los fármacos.

Las asistencias realizadas ascendieron a un total de 778 atenciones de las cuales en la Red de Transporte Sanitario Urgente (112) fueron 678 (454 hombres y 224 mujeres), el resto a los servicios preventivos.

SOCIAL

En esta área y mucho a nuestro pesar hemos tenido que adoptar medidas drásticas que han abocado con el cierre de servicios que realizamos a la comunidad Goierritarra

Los distintos servicios que tenemos en unos casos se están manteniendo y en otros reduciendo

quedándonos ese sabor agridulce por el cierre de actividades que perjudican muy seriamente a la población Goierritarra

Hemos tenido que abandonar servicios en los que somos pioneros, ya que son actividades detectadas la necesidad y posteriormente creadas por esta institución.

Las actividades que hemos tenido que dejar por falta de recursos económicos son los siguientes:

Asesoramiento Legal

Esta actividad que realizábamos estaba en el asesoramiento a las personas Inmigrantes Legales que requieren nuestros conocimientos para realizar las gestiones legales que deben realizar para formalizar las renovaciones que se les exige, Acompañamientos a los distintos tribunales de justicia a los que les citan para legalizar su situación legal y laboral.

Crono

Este servicio que también es para personas Inmigrantes, pero en este caso menores no acompañados, es decir todo aquel menor que esta tutelado por la Diputación de Gipuzkoa, Cruz Roja la labor que realizaba consistía en irles integrando en la sociedad Gipuzkoana, así como apoyo escolar, deportivo, las distintas culturas de su país y el nuestro (Euskadi), el último día de actividad ha sido el 31/12/12.

Transporte Adaptado

Este servicio seguimos manteniendo teniendo muchas pegas por como quieren que se realice y como lo realizamos, nuestro servicio es de puerta a puerta y lo que se nos requiere es una parada en común. Además el servicio que prestamos lo realizamos con un conductor y una auxiliar para garantizar la calidad del servicio y la calidad de vida de los usuarios, pues bien, por querer seguir realizando el servicio en estas condiciones se nos aparta del servicio introduciendo compañías de transporte que solo piensan en esos rendimientos económicos, no teniendo en cuenta que con los usuarios que transportan necesitan un servicio de calidad, ya que para nosotros son personas vulnerables y que requieren una atención especifica.

En el transporte adaptado seguimos con algunos servicios que también tenemos muchas dudas de la continuidad que podamos tener, ya que como comentábamos en estos momentos en los cuales se prima más el interés económico que el buen hacer nos hace ser pesimistas pero todo llegará.

Los datos son los siguientes:

Horas invertidas anuales	3384 Horas
Usuarios transportados	13918 Usuarios
Voluntarios/as	140 Voluntarios/as
Centro de día servicio diario	3 Centros
Residencias servicio diario	1 Residencia

A parte de estos servicios están los que surgen y son puntuales que no son muchos al año.

Ayuda a Domicilio

Seguimos realizando un servicio diario y solamente no se realizan 2 días al año, esta actuación conlleva 2912 Horas de servicio anual y para ese servicio tenemos con unas personas capacitadas para el servicio.

Para el servicio Domiciliario disponemos de una Bolsa de Trabajo en la cual las familias Goierritarras se dirigen a nuestras dependencias buscando personas para atender a sus mayores.

Este colectivo de personas que disponemos primeramente ha sido formada en nuestras dependencias para poder realizar trabajos en el Domicilio, así como para poder atender a las personas discapacitadas dentro de su ámbito.

Plan Operativo al Inmigrante

Este departamento realiza las gestiones de Primera a cogida, formación, seguimiento personalizado de cada uno de ellos, así como una bolsa de trabajo que, en la misma se les gestiona las posibles ofertas de empleo que recibimos.

Material Escolar

Anualmente realizamos entregas de material escolar a las familias que en estos momentos esta

en una difícil situación y que aunque parece que es poco para ellos es mucho, este año hemos realizado la entrega a un total de 65 niños del Goierri.

Ropa y Enseres

También periódicamente realizamos entregas de ropas así como coches de críos, capazos para bebes etc...., que realmente las personas que reciben lo agradecen, estas entregas se realizan según necesidades de los demandantes.

FORMACIÓN

Este departamento ésta día a día transformándose debido a las nuevas exigencias que están exigiendo en el mercado laboral

Nos estamos preparados para la nueva etapa que vamos a comenzar, introduciendo nuevos paquetes formativos con certificación profesional, esto nos esta llevando a realizar unas homologaciones muy severas que conlleva la nueva praxis de todos.

Hemos apostado en estos momentos por entrar en todo lo concerniente a la formación reglada y la inversión que estamos realizando esperamos que pronto vea la luz.

Dentro de las homologaciones hemos conseguido homologar cursos dentro del catalogo modular, así también tenemos reconocido por la Agencia Vasca de Certificaciones Profesionales un asesor y un evaluador.

Hemos seguido realizando cursos para las oposiciones a Osakidetza, Hobetuz, y Lanbide.

Por nuestras aulas en el año 2012 han pasado un total de 210 alumnos, hemos asesorado a un colectivo de 130 profesionales que obtaban a conseguir las certificaciones profesionales del trabajo que realizan, así pues, en el mismo 70 personas han realizado sus evaluaciones en nuestro centro para conseguir su certificación profesional.

Toda persona que accede a un curso nuestro entra en la bolsa de trabajo que tenemos y, que muchas de ellas están teniendo salida profesional en la misma zona, sobre todo en las Residencias de Ancianos, Centros de Día y en los Domicilios de nuestros Goierritarras y, de las zonas cercanas.

Para el año 2013 tenemos ya programados distintos cursos que en su gran mayoría están ya completos, concretamente 24 cursos y las plazas para todos ellos ascienden a 445 plazas de las cuales están ya reservadas un total de 310.

Herboristeria Belardenda II

Andre Mari, 1 • Tel. 88 99 77
20200 BEASAIN

asmube

Beasaingo Emakumeen Elkartea
Asociación de Mujeres de Beasain



Un año más desde la asociación os deseamos felices fiestas.

La actual junta ha cumplido un año largo en la dirección de ASMUBE, un año en el que hemos aprendido a trabajar en equipo con buena voluntad y armonía.

Damos las gracias a todas las mujeres que han pasado por la junta de ASMUBE haciendo posible que la asociación sea cada vez más numerosa, con ideas y proyectos de futuro.

Nuestra prioridad es valorar a la mujer en la sociedad actual, para que hechos no deseados se erradiquen de nuestra vida.

Invitamos a todas las mujeres se acerquen a nuestra asociación, donde podrán disfrutar, participar de comentarios, opiniones, lectura, cine etc. En buena compañía, identificándose con el orgullo y los derechos de la mujer.

Un saludo

La junta de Asmube

Beste urte batez, gure erakundetik festa onak pasa ditzazuela opa dizuegu.

Gaur egungo batzordeak urte bete luze bat igaro du Asmube-ko zuzendaritzan, harmonia eta borondatez onez taldean lan egiten ikasi dugun urte bat.

Eskerrak ematen dizkizuegu, bertatik pasa zareten emakume guztiei, erakundean jende gehiago egoten lagundu duzuelarik, etorkizunerako proiektu eta ideia berriekin.

Gure lehentasuna emakumea gaur egungo gizartean baloratzea da, nahi ez diren ekintzak gure bizitzatik at gera daitezen.

Emakume guztiei gonbidatzen dizuegu gure erakundera gerturatzera, disfrutatu dezazuen, eta iritzi, komentario, zinema, irakurketetan... parte har dezazuen. Lagunarte on batean, emakumearen eskubide eta harrotasunarekin identifikatuz.

Agur bero bat,

Asmube batzordea

natx
Dietética-Belardenda

ESTANDA

FUNDICIONES

Gure esperientzia zure zerbitzura

Fundiciones Estanda enpresan metalurgia alorrean esperientzia handia edukitzeaz gain gure bezeroen beharrei erantzuteko galdaketa-teknologia egokia dugu.

1953tik aurrera punta- puntako teknologia erabiltzen dugu altzairuetan eta aleazio baxuko garapenean; eta horien arteko konbinazioak aukera aparta eskaintzen digu kalitate ezin hobea lortzeko gure produktuetan.

Nuestra experiencia a tu servicio

En Fundiciones Estanda contamos con una experiencia metalúrgica y una tecnología de fundición al servicio de las necesidades del cliente.

Desde 1953, estamos a la vanguardia de aceros de fundición y del desarrollo de bajas aleaciones, ofreciendo una combinación única en tecnologías de moldeo, fundición, desmoldeo y tratamiento térmico, mecanizado y diseño.



2012ko Krosa
Cross 2012

2012ko abenduaren 31an Beasaingo San Silvestre lasterketaren XXXIX. ekitaldia burutu zen; beraz, berrogeigarren ekitaldiaren atarian gaude. Urte askotan zintzo aritu gara herri-lasterketa hau, zirkuitu osoan banaturik egon ohi den hainbat eta hainbat zaleren artean hain harrera ona izaten duena, antolatzen.

Urrun gelditu dira, gure harridura eta zenbaiten txantxak eraginez, hasieran herri inguruan eta geroago herriko kaleetan bertan –batez ere arratsean– entrenatzen ikusten genituen lehen korrikalari haien garaiak.

Aitzindari haiek egin zuten bidea eta gaur egun, korrikalarien eta lasterketen ugalketa ikusirik, guztiz normala iruditzen zaigu gizonezkoak nahiz emakumeak lehen harriduraz ikusten genituen lasterkari haien leku berberetan edozein egun eta ordutan entrenatzen ikustea.

Horrek oso gauza positibo eta garrantzitsuak erakusten dizkigu: Beasainen ez ezik, Goierri eta Gipuzkoa osoan kirol mota honek dituen sustrai sakonak eta kirol mota honekiko dagoen zaletasuna.

El día 31 de Diciembre de 2012 se celebró la XXXIX edición de la San Silvestre de Beasain, esto quiere decir que nos encontramos a falta de una edición para llegar a las cuarenta. Muchos años acudiendo fielmente a celebrar la popular prueba Beasaindarra que tan buena acogida tiene entre la numerosa afición distribuida por todo el circuito.

Quedan lejanos aquellos tiempos en los cuales sobre todo al atardecer veíamos con extrañeza y también con algún comentario jocoso, como los primeros aficionados a este deporte entrenaban, al principio, por los alrededores y más tarde por las calles de nuestra villa.

Estos pioneros abrieron el camino, el aumento de aficionados y la proliferación de carreras nos hacen ver hoy con toda normalidad a personas de ambos sexos entrenando a cualquier hora por las mismas calles que a esos que antes mirábamos con extrañeza.

Todo esto nos demuestra algo muy importante y positivo y es el arraigo y la afición a esta disciplina deportiva no solo en Beasain, también en todo el Goierri y por extensión en toda Gipuzkoa.

Urtetik urtera partaidetza handitu egiten da, ekitaldi bakoitzean marka berriak ezarriz, eta Euskaditik ez ezik, beste autonomia erkidegoetatik ere etortzen dira korrikalari eta zaletuak Beasaingo herri-lasterketara.

Guztiok harro egoteko modukoa da, bestalde, ibilbide osoan egon ohi diren zaleen aldetik jasotzen dituzten aupada eta txaloak direla-eta, partaideek adierazten duten eskerrona, zale horiek etengabe adoretzen baitituzte lasterkari guztiak.

Año tras año la participación va en aumento batiendo record en cada nueva edición, pero no solo de Euskadi, también de otras autonomías acuden corredores y aficionados a la popular prueba Beasaindarra.

Motivo de orgullo para todos es destacar las continuas muestras de agradecimiento de los participantes por los ánimos, aplausos y muestras de cariño que reciben de una afición que apostada en todo el recorrido no para de jalear al pelotón.

Resaltar el aumento de la participación local que cada vez más opta por correr en su pueblo y ante sus incondicionales, y a la que desde estas páginas seguimos animando.

Muy bonito ha sido el espectacular aumento en la participación femenina con más cincuenta atletas en la línea de salida demostrando el empuje y el carácter de la mujer también en el deporte.

También para la organización todos estos años han supuesto cambios importantes, atrás quedan aquellos años de comienzo y posteriores que con escasos medios y de forma manual se realizaban inscripciones, toma de tiempos, recogida de dorsales y clasificaciones.Posteriormente con la llegada del ordenador y a pesar de las limitaciones de los programas que había por aquellas fechas nos facilitó mucho todo el tema organizativo.

Pero con la aparición de las nuevas tecnologías nos ha facilitado a todos los organizadores unos medios que bien utilizados permite que sean los propios interesados los que hagan sus inscripciones a través de las páginas web de cada carrera.

Goraipagarria da herriko korrikalari-kopurua handitzea ere, geroz eta gehiago baitira euren herrian eta euren jarraitzaileen aurrean korrika egitea aukeratzen dutenak, eta orrialde hauen bidez bide horretatik jarraitzera bultzatu nahi ditugu.

Oso polita da emakume korrikalarien kopuruak izan duen gorakada ikustea, irteeran berrogeita hamar baino gehiago izan baitziren, kirolean ere emakumeak kemena eta nortasuna dituela erakutsiz.

Con la adjudicación del chip y del dorsal, el atleta está controlado en todo momento de la prueba y en nuestro caso, a cada paso por línea de meta registra todos los datos de cada corredor, permitiendo de esta manera mayor celeridad y fiabilidad en todas las clasificaciones. Como ejemplo, basta decir que nuestra prueba comienza a las 12 horas y para las 13horas 30minutos se está desmontado todo el circuito.

En cuanto a lo deportivo en una mañana con 14 grados y sin lluvia, la carrera Beasaindarra,

Antolatzaileok ere aldaketa handiak izan ditugu urte hauetan guztietan; atzean gelditu dira izenemateak, denbora-neurketak, zenbaki-bilketak eta sailkapenak eskuz eta bitarteko urriekin egiten ziren hasierako eta ondorengo urte haiek. Gero ordenagailua heldu zen eta, hasiera hartako programak murritzak ziren arren, erraztasun handiak ekarri zituen antolaketa-lan guztietarako.

Teknologia berrien agerpenak, ordea, baliabide ugari ipini ditu antolatzaile guztion esku, eta bitarteko horiek behar bezala erabiliz gero korrikalariek beraiek eman dezakete orain izena, lasterketa bakoitzak duen web orriaren bitartez.

Txipa eta zenbakia dituela, atleta kontrolaturik egoten da lasterketako une guztietan eta gure kasuan helmugatik igarotzen diren bakoitzean korrikalari bakoitzaren datu guztiak erregistratzen dira, sailkapen guztiak azkarrago eta era fidagarriagoan egin ahal izateko. Adibide modura esan dezagun gure proba eguerdiko 12etan hasi eta ordu bata eta erdietarako zirkuitu guztia desmuntaturik egon ohi dela.

Kirol arloari dagokionez, 14 graduko eta euririk gabeko goiz batean, Beasaingo lasterketak ikusmin handia piztu zuen ekitaldi guztietan ohi denez ibilbide osoan zehar. Irteera baino lehentxeago nabaria izaten da lehen postuetan amaitzea helburutzat duten eta kokapen ona eduki nahi duten lasterkarien urduritasuna. Podiumerako aukerak dituzten emakumeek ere kokapenik onena eduki nahi izaten dute lasterketari ekiterakoan. Kirolari herrikoien tropela, berriz, giro lasaiagoan prestatzen da 9.000 metroko ibilbideari aurre egiteko.

como viene siendo habitual en todas sus ediciones, concentró una enorme expectación en todo su recorrido. Momentos antes de la salida se puede palpar el nerviosismo y la búsqueda de una buena posición por parte de los corredores que aspiran a los primeros puestos. También las féminas con opción de pódium buscan la mejor ubicación para

Lasterketa abiatu orduko, hamalau atletez osatutako faboritoen taldeak indar handiz ekin zion probari, tropel guztia atzetik zuela. Lehen kilometroetan, talde hori elkarturik joan zen, baina zazpigarren kilometrotik aurrera zenbait lasterkari atzean gelditzen hasi zen eta buru-buruan azkenean podiumeko postuak bereganatuko zituzten hiru atleta marokoarrez osatutako taldea eratu zen. Helmugarako 1.200 metro falta zirela, ordea, El Mouazizek eraso gogorra jo eta ezustean harrapatu zuen faborito nagusia, Blal; horrela, bere hirugarren garaipena erdietsi zuen proba honetan, baina berak aitortu zuenez ahiturik bukatu zuen eta laguntza txiki bat behar izan omen zuen bere onera etortzeko.

Podiuma honela osatu zen: lehena, Hamid el Mouaziz, 25'44"; jarraian, Mohammed Blal, 25' 49"; eta hirugarren, Hicham el Amrani, 25'52".

Emakumeen kategoriari dagokionez, aurreikuspenak bete egin ziren eta Malika atleta marokoarrak lasterketa zuhurra burutu zuen, indarrak neurtuz eta aurkariak une oro kontrolatuz; garaile iritsi zen helmugara, ezusteko atsegina eman eta ikusleen aupada ugari bereganatu zuen bigarrenari, Kantabriako Paula Gonzalezi, 14'ko aldea atereaz. Honela gelditu zen, bada, emakumean podiuma: lehena Malika Asahhssah, 30'28"– 21.a sailkapen orokorrean–; bigarren Paula Gonzalez, 30'42"; eta hirugarren Kaoutar Boulaid 30'59".

lanzarse en la carrera, con más tranquilidad y ambiente relajado y distendido, el numeroso pelotón de populares se prepara para enfrentarse a los 9000 metros del recorrido.

Nada más darse la salida arranca con fuerza el grupo de favoritos compuesto por unos catorce atletas arrastrando a todo el pelotón, este grupo durante los primeros kilómetros se mantiene unido pero es a partir del km7 cuando empiezan a descolgarse corredores formándose un trio compuesto por tres atletas marroquíes que al final coparon el pódium. Pero fue a falta de 1200m cuando El Mouaziz lanzó un fuerte ataque que sorprendió a Blal que era el favorito y que supuso su tercera victoria en esta prueba, aunque como el mismo reconoció terminó agotado y necesitó una pequeña ayuda para recuperarse.

El pódium lo formaron: Hamid el Mouaziz 25'44" seguido de Mohammed Blal 25'49" y tercero Hicham el Amrani 25'52".

En la categoría femenina se cumplieron los pronósticos y la atleta marroquí Malika realizó una carrera inteligente dosificando y controlando a sus rivales en todo momento y entrando vencedora en meta con una ventaja de 14' sobre la segunda, la Cántabra Paula González, que fue toda una sorpresa y que el público agradeció con numerosas muestras de apoyo. El pódium quedó así: Malika Asahhssah 30'28" que además ocupó el puesto 21 en la clasificación general, seguida de Paula González 30'42" y de Kaoutar Boulaid 30'59".

Lehen gizonezko gipuzkoarra Lasarteko Endika Gartzia izan zen, 28'52", eta lehen emakumea, berriz, Amaia Insausti, 36'48"ko denborarekin.

Beste urte batez, Manu Hurtado izan zen herriko gizonezkoen sailkapen-buru, 29'57"ko denborarekin; jarraian Aitor Etxebeste, 30'41", eta ondoren Martin Irizar, 30'47".

Herriko emakumeen podiuma honako hauxe izan zen: lehena Elena Calvillo, 36'58"; bigarren Itziar Andueza, 37'38"; eta hirukoa osatuz, Sonia Reyes, 39'53".

Herriko gaztetxoak ere lehiatu ziren eta lehen sailkatuak honako hauek izan ziren: Mikel Insausti, 35'36"; Aitor Urdangarin, 37'05"; Nikolas Sarriegi, 38'31"; Ramse Rocha, 38'38"; Karlos Sanchez, 39'16"; eta Danel Cuellar, 39'50".

Eta hasieran esan dugun bezala, Beasaingo San Silvestre lasterketari ekitaldi bakarra falta zaio berrogeigarrenera heltzeko; horretarako, aurreko ekitaldietako erakunde, enpresa iragarle eta laguntzaileen laguntza eta lankidetza behar ditugu. Horiei guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu orrialde hauetatik; eta, bide batez, jai zoriontsuak opa dizkizuegu guzti-guztioi.

Batzordea

El primer gipuzkoano fue el lasartearra Endika Gartzia 28'52", siendo la primera gipuzkoana Amaia Insauti con un tiempo de 36'48".

La clasificación local masculina un año más estuvo comandada por Manu Hurtado parando el crono en 29'57" seguido de Aitor Etxebeste con un tiempo de 30'41" y acompañados por Martín Irizar con 30'47".

El pódium local femenino lo formaron Elena Calvillo 36'58" seguida de Itzia Andueza 37'38" y cerrando el trio Sonia Reyes en 39'53".

Los menores locales se disputaron los primeros puestos quedando clasificados en este orden: Mikel Insausti 35'36" Aitor Urdangarín 37'05" Nicolás Sarriegi 38'31" Ramse Rocha 38'38" Karlos Sánchez 39'16" y Dánel Cuellar 39'50".

Y como decíamos al principio estamos a un paso de llegar a las cuarenta ediciones de la San Silvestre de Beasain, pero para ello necesitamos contar con la ayuda y colaboración de entidades, anunciantes y colaboradores como en ediciones pasadas. A todos ellos desde estas páginas les mostramos nuestro más profundo agradecimiento, deseando a la vez unas felices fiestas para todos.

La comisión

BKL Beasain

Han transcurrido 8 meses desde que empezamos la temporada, allá por sep-13, que este año, tuvo como novedad la presentación general de los equipos en el polideportivo Antzizar. La finalización de la misma, estará aliada con las fiestas de Beasain, ya que en estas fechas gran parte de los equipos estarán de vacaciones.

A través de estas páginas intentaremos hacer un balance de lo que ha sido la misma durante el último año.

IMAGEN CLUB

En el aspecto marca club, 3 cambios muy importantes se han producido a nivel de imagen, cambiando por completo la equipación naranja que durante 25 años nos ha representado y cuya presentación presentación del nuevo formato se realizo de forma oficial.

Por otro lado se ha cambiado el logo de la entidad, dándole un diseño totalmente renovado.

Además de esto, se ha generado la TARJETA de socio colaborador del club, como apoyo económico a este.

ACTIVIDADES

Aparte del desarrollo deportivo que describiremos mas adelante, muchas han sido las actividades que paralelamente hemos desarrollado en el club en torno al baloncesto.

Hacer refeencia, aunque sea de la temporada pasada, al II torneo 4X4, que supuso un gran éxito de participación y publico, que además fue animado, con hinchables para los mas peques.

